bakeaz
bakeari buruzko dokumentazio eta ikerkuntzarako zentroa
centro de documentación y estudios para la paz

CUADERNOS BAKEAZ
88
LANKIDETZAKO POLITIKAK

Florent Marcellesi eta Igone Palacios

# Iraunkortasunari buruzko gogoetak garapenerako lankidetzan sartzea

*__Florent Marcellesi__ (fmarcellesi@bakeaz.org) Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria da Lyongo Zientzia Aplikatuetako Institutu Nazionalean (Frantzia), eta hirigilea Parisko Zientzia Politiketako Institutuan. Aditua da nazioarteko lankidetzaren arloan (Hegoa Institutuaren graduatu-ondokoa egina du, Bilbon), eta, iraunkortasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko gaietan egiten duen lanaz gainera, sakon jarduten da lanean Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako eta Europako mugimendu berdearen barruan. Bakeaz erakundeko bazkidea eta EcoPolítica zentroko koordinatzailea da, eta ekologia politikoari, ingurumenari edota Europako edo nazioarteko auziei buruzko artikuluak idazten ditu hainbat egunkaritan eta aldizkaritan. Besteak beste, artikulu hauek eman ditu argitara: «Desarrollo, decrecimiento y economía verde» (__The Ecologist para España y Latinoamérica,__ 2007), «Nicholas Georgescu-Roegen, padre de la bioeconomía» (__Ecología Política,__ 2008) eta «El espejismo de los agrocombustibles» (__El Correo,__ 08-06-06). Horrez gain, __Ecología política: teoría, génesis y praxis de la ideología verde__ azterlana ere argitaratu du (Bilbo, Bakeaz, 2008).*

*__Igone Palacios Agúndez__ biologoa da, Ingurumenaren Kudeaketako eta Teknologiako masterra egina du Vic-eko Unibertsitatean (Bartzelona), eta diplomaduna da Ekologiako Ikasketa Aurreratuetan. Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea da, eta, bertan, «Bizkaiko Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa» izena duen proiektuaren koordinazioaz eta kudeaketa teknikoaz arduratzen da. Proiektu hori Nazio Batuen Milurteko Ekosistemen Ebaluazio Programaren barruan sartuta dago, eta harremanetan jartzen du gizakien ongizatea eta ekosistemen osasuna. Ekologia- eta ingurumen-arloko ikerkuntzako proiektu batzuetan lan egin du, eta, horrez gain, ingurumenari eta/edo nazioarteko lankidetzari lotutako jardunaldietan, mintegietan, erakusketetan eta ikastaroetan hartu du parte.*

*Gizakiek, gizarteek eta naturak elkarrekiko mendekotasun estua dutenez, politika publikoen lehentasunezko helburua planeta eta bere ekosistemak zaintzea izan behar du. Horiek horrela, nazioarteko lankidetzak oinarrizko eginkizuna betetzen du ingurumen- eta gizarte-arloko justizia orokorra eraikitzeko lanean. Hala ere, oraindik hausnarketa teoriko gehiago egin behar da iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren artean dagoen loturari buruz, eta lotura hori benetan gauzatu behar da. Azterlan honen bidez, esparru teoriko bat finkatu dugu, iraunkortasunaren eta gizakien ongizatearen artean dagoen harremana argi eta garbi azaltzeko, eta, orobat, zalantzan jartzeko indarrean dauden eta ezarri nahi diren garapen-ereduak, Lurrak dituen muga biofisikoak kontuan izanda, eta Ipar-Hegoaren artean dagoen mendekotasun ekologikoa aintzat hartuta. Bestalde, ingurumenari eta lankidetzari buruzko gaietan dauden nazioarteko, eskualdeko eta tokiko esparru juridikoaren azterketa oinarritzat hartuta, jarraibide batzuk ezarri ditugu, nazioarteko lankidetzaren eguneroko praxian ingurumenari buruzko iritziak barne har daitezen.*

*Azterlan honetako zuzendari zientifikoak hauek izan dira: __Roberto Bermejo Gómez de Segura__ (UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Bakeaz erakundeko Ekonomia Iraunkorraren arloko arduraduna), __Miren Onaindia Olalde__ (Ekologiako irakaslea eta UPV/EHUko Garapen Iraunkorrari eta Ingurumeneko Hezkuntzari buruzko UNESCO katedrako koordinatzailea) eta __Hernando Bernal Zamudio__ (nekazaritzako ingeniaria Kolonbiako Amazoniako Unibertsitatetik).*

## AURKIBIDEA

1. Sarrera — 2
2. Iraunkortasun eta garapen kontzeptuei buruzko esparru teorikoa — 3
3. Lankidetzaren eta ingurumenaren arloko lege-esparrua — 10
4. XXI. mendeko ekologiako erronkei aurre egiteko lankidetza lortzeko lehenengo jarraibideak — 16
5. Ondorio orokorrak — 21
*Oharrak* — 21
*Bibliografia* — 22

# 1 Sarrera

Gizakiek eta gizarteek lotura estu-estua dute naturarekin. Gizakiok onurak, eta hornitzeko, erregulatzeko, eusteko eta kulturako zerbitzuak eskuratzen ditugu ekosistemetatik eta ekosistemen funtzioetatik; eta horiei esker planetan bizitza dago (ikusi 1. koadroa). Hala ere, gizarte batzuek behar ez bezala eta neurriz gain baliatu dituzte eta baliatzen ari dira ekosistemen zerbitzu horiek —batez ere industriako iraultza izan zenez geroztik—, eta, horren ondorioz, ingurumeneko krisialdian gaude mundu osoan. Egoera horrelakoa izanik, krisialdi klimatikoak eta energetikoak, biodibertsitatearen galerak eta baso-soiltzeko prozesuak edota elikadura-arloko krisiak elkarren arteko lotura dute, prozesu batek bestea elikatzen baitu. Horrenbestez, Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko zientziako erkidegoak behin eta berriz ohartarazi digute planetak duen biogaitasuna gainditzen ari garela, eta, beraz, egin diren aldaketa batzuek beharbada ez dutela atzerabiderik izango. Izan ere, inguruneak jatorri antropikoko inpaktu handiak jasaten ditu, hain handiak non inpaktu horien ondorioek mugak gainditzen baitituzte —eta planetako ekosistemek elkarren artean duten mendekotasun handiak areago larritzen du arazo hori— (Barreira, Ocampo eta Recio, 2007: XIX). Horiek horrela, gure ingurunea eta haren osagai guztiak bizkor eraldatzen ari dira, hala tokian bertan nola mundu osoan barrena. Gainera, gaur egun lehentasuna duen garapen-ereduaren ondorioz, ingurumena larriki hondatzen ari da, eta horrek areago sakontzen ditu gatazkako egoerak eta ziurtasun eza, bai eta gizartean eta belaunaldien artean edota belaunaldien baitan dauden pobreziako eta desberdintasuneko arazoak ere.

Hala, bada, azterlan honetan aztertuko ditugun arrazoi horiengatik, planeta eta haren ekosistemak zaintzeak politika publikoen lehentasunezko helburua izan behar du, hala Iparrean nola Hegoan.[1] Ildo horretan, tokiko eta nazioarteko lankidetzak funtsezko zeregina betetzen du ekosistemek gizateriari ematen dizkioten ondasunak eta zerbitzuak eta natura bera zaintzeko aukerak edo hautabideak eraikitzerakoan. Lankidetzak iraunkortasuna izan behar du ardatz gisa, eta irizpide ekologikoak bete behar ditu —eta, gainera, prozesuetan sartuta dauden pertsona eta eragile guztiek parte hartu behar dute bertan—. Hori funtsezko gakoa da, alde batetik, etorkizuneko belaunaldiei bakean dagoen eta osasuntsua den planeta uzteko, eta, bestetik, gaur egun Iparraren eta Hegoaren artean dauden desberdintasunak eta pobrezia murrizteko. Azken batean, etorkizuneko belaunaldiak, natura eta Hegoko biztanleria izango dira, hain zuzen, garapenerako lankidetzak, bere plan zuzentzaile, programa eta proiektu guztietan, era osokoan eta zeharkakoan aintzat hartu beharko dituen onuradun zuzenak eta zeharkakoak. Ildo horretan, azterlan honen tesiak ez du zalantza egiteko aukerarik uzten: justizia soziala lortuko badugu eta 2015. urte ingururako mundu osoan dagoen pobrezia erdira murriztuko badugu —eta, aurrerago, giza espeziaren biziraupena baldintza duinetan bermatuko badugu—, behar-beharrezkoa da iraunkortasunari buruzko gaiak nazioarteko lankidetzaren teorian eta praxian barne hartzea, orain arte egin den baino askoz ere tinkotasun gehiagoz eta argi eta garbi arituta.

Ikusten dugunez, gaur egun, badaude oinarrizko kontzeptu batzuk, *giza garapen iraunkorrari* buruzko agendaren moduko ingurumeneko agendek babesten dituztenak eta hedatzen ari direnak; baina, hala ere, hori guztia ez da benetan gauzatzen —ez, behintzat, era sistematizatuan, eta asmo onetatik harantz iristeko asmo tinko izanda—, hau da, ez da praktikan jartzen politika eta ekintza zehatzik, iraunkortasuna eta garapenerako lankidetza era bateratuan lantzeko.

Gabezia horiek nolabait bete ahal izateko, azterlan honetan, lehenbizi, esparru teorikoa azalduko dugu, hartara, gizakiaren ongizatearen, Ipar-Hegoaren arteko berdintasunaren, garapenaren eta iraunkortasunaren artean dagoen harremana areago sakontze aldera. Jarraian, harreman hori babesten duen esparru politikoa eta legezkoa aztertuko dugu, eta, horren ondoren, jarraibide edo ildo batzuk paratuko ditugu

**1. koadroa** *Ekosistemen funtzioak, haien zerbitzuak eta Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa*

Naturak —bera baita gizakien bizitza eta giza bizitza ez dena ere egon dadin funtsezko oinarria— ura, elikadura, energia eta materialak ematen dizkigu, eta, hornidurari lotuta dauden onura horiek emateaz gain, naturako ekosistemek beste hainbat zerbitzu egiten dizkiote gizarteari: kulturako zerbitzuak (jolas-, hezkuntza, espiritu- edo estetika-arlokoak), ingurumena arautzeko zerbitzuak (klima, uholdeak, gaixotasunak, uraren kalitatea, uraren zikloak, $CO_2$ bahitzea) eta, orobat, berez laguntza edo sostengua emateko diren zerbitzuak (mantenugaien zikloa, lurra eratzea) (Millennium Ecosystem Assessment, 2005). *Ekosistemen zerbitzu* kontzeptu hori John Holdren-ek aipatu zuzen lehenbiziko aldiz (Daily, 1997), eta gizarteak ekosistemetatik eskuratu ahal dituen onurei eta zerbitzuei egiten die aipamen. Kontzeptu horren sorburuan dagoen paradigma da ekosistemak hobetu ezagutu eta balioetsi behar direla, gizakiok haien mende baikaude erabat (Onaindia, 2007: 41).

Ikuspegi horretatik, Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa (Millennium Ecosystem Assessment, 2005) nazioarteko zientziako erkidegoak orain arte sekula egin duen ahaleginik handiena da (95 herrialdetako 1.300 zientzialari baino gehiago egon baitira tartean). Ebaluazio horren xedea da, alde batetik, behar bezala ebaluatzea ekosistemetan izan diren aldaketek zer-nolako ondorioak dituzten gizakien ongizatean, eta, bestetik, oinarri zientifiko batzuk finkatzea natura zaintzeko eta haren erabilera iraunkorra bermatzeko eta, hortaz, gizakiaren garapenari laguntza emateko etorkizunean egiten diren ekintzak bideratzeko (González eta beste batzuk, 2008: 64). Ebaluazio horren emaitzak ikusita, argi dago *gizateriaren ongizatea, hein handi batean, aniztasun biologikoan eta munduko ekosistemen osasunean oinarrituta dagoela,* bi faktore horiek lagungarriak baitira gizakien era askotako beharrizanak asebetetzeko.* Bestalde, ebaluazio horren arabera, gizakien ongizatea eta ekosistemen osasuna estu-estu lotuta daudenez, kapital naturala era egokian kudeatzen baldin bada, oinarrizko zerbitzuak sortu ahal izango lituzke giza populazio guztien ongizatea eta garapena bermatzeko (ibidem).

* Max-Neef-ek eta beste aditu batzuek 1986. urtean egin zuten giza eskalako garapenerako proposamenari jarraiki, gizakiek dituzten oinarrizko beharrizanak bederatzi hauek dira: iraupena, babesa, afektua, ulermena, sorkuntza, parte-hartzea, aisia, nortasuna eta askatasuna. Beharrizan horiek guztiek garrantzi berbera dute. Beharrizan horietako asko gizartean dituen harremanei esker edo gizartean egiten duen bizitzaren bidez eta ingurumenarekin duen harremanaren bidez betetzen ditu gizakiak. Hortaz, gizakiok elkarren artean eta ingurumenarekin harremanetan jartzeko ditugun moldeek oinarrizko zeregina betetzen dute gure ongizateari eta zoriontasunari begira.

**Iturria** Geuk egina.

eguneroko praxian ingurumeneko irizpideak sartzea errazagoa izan dadin.

# 2 Iraunkortasun eta garapen kontzeptuei buruzko esparru teorikoa

Atal honen ardatza garapenerako lankidetzak iraunkortasunarekin lotzen duen esparru teorikoa eta kontzeptuala da, esparru hori guztiz garrantzitsua baita gizarte osoa lotura horretaz jabetu dadin, eta, hartara, ahaleginak batu, eta tokiko eta munduko iraunkortasunerantz jotzeko modu bateratuak hausnartu, planifikatu eta gauzatu ahal izateko. Gizarteko desberdintasunak eta krisialdi ekologikoak estu-estu lotuta daudela aintzat hartuta, gure iritziz, gaur egun nagusi diren hazkunde ekonomikoaren eta kontsumoko patroien aurrez aurre egon daitezkeen hautabideak eta irtenbideak ikuspegi zabal batetik aztertu behar dira, eta, horretarako, garapenerako lankidetzaren eta iraunkortasunaren artean dauden lokarriak estutu behar dira. Alabaina, gaur egun ez dago benetako loturarik lankidetzako eta ingurumeneko politiken eta planen artean, eta gainera nabaria da gai horri buruzko ikerketa gutxi daudela eta metodologiak gutxi sistematizatuta daudela. Kontzeptuzko esparru teorikoaren azterlan honen bitartez, ahalegina egin dugu sakonago ikertzeko zein izan daitezkeen benetako loturarik ez egoteko arrazoiak, horrela, izan litezkeen irtenbideak aurkitze aldera.

## Gizakien ongizatea eta iraunkortasuna: banaezinak diren bi kontzeptu

Lurrean azaldu zenetik, gizakiak planetan dauden ekosistemak erabili eta aldatu ditu, gero eta baliabide gehiago behar zituelako. Hori izan da, hain zuzen, planeta eraldatzeko prozesuan izan den eragile nagusietako bat, eta gaur egun ere halaxe izaten jarraitzen du. Gizakiak ingurunearekin harremanetan sartzeko izan duen modua aldatuz joan da historian barrena, kultura eta mundu-ikuskera desberdinen arabera. Hala, beraz, aldatuz joan da mundua ikusteko eta ulertzeko izan diren molde desberdinen arabera. Horiek horrela, gizakien antolakuntza desberdinek naturarekin izan duten mendekotasunari eta harremanari erreparatzen badiegu, sinbionteak edo harrapariak izan direla esan dezakegu: sistema naturaletara hurbiltzeko bi ikuspegi horiek hainbat estrategia ematen dizkigute, eta aditzera ematen digute gizakia ez dagoela sistema naturaletik isolatuta, bestela baizik: biak ala biak koeboluzioan daude estu-estu (Norgaard eta Sikor, 1999: 45-46). Diamond-ek (2004) ingurumenaren narriadura antropikoaren ondorioz sortutako koeboluzio harrapariaren kasuak bildu zituen. Esate baterako, Pazko Uharteak baliabide eta biztanle ugari galdu zituen baliabide naturalen gehiegizko ustiapenaren eta kudeaketa txarraren ondorioz —batez ere zuhaitzak galtzearen ondorioz, biztanleek zuhaitzak behar baitzituzten zernahitarako bizirik iraungo bazuten—. Bestalde, erdialdeko Amerikan, maien hiriak desagertu ziren, eta, itxura denez, horrek zerikusia izan dezake arrazoi ekologikoekin (Diamond, 2004; Lipietz, 2002) eta soziopolitikoekin (Ruz, 1993). Kontinente europarrean, nabarmena da Izurrite Handia iritsi zenean (1346. urtean) eztanda egin zuen krisialdi ekonomiko, ekologiko, sozial eta demografikoa, hain zuzen, une hartan Europa erabateko saturaziora iritsia baitzen, karga-ahalmena gaindituta, eta bertako biztanleria ahulduta baitzegoen (Lipietz, 2002).

Alabaina, industriako iraultzatik aurrera, gizakiak ingurumenean eragin dituen inpaktuek gogor eta zorrotz egin dute gora, hala mailan nola intentsitatean. XIX. mendean hasi zen industria-iraultzak aldaketa sozioekonomiko, teknologiko, kultural, mental, ideologiko eta politiko larriak ekarri zituen berekin, eta, gainera, materialen erabilerak gora egin zuen nabarmen. Hala, bada, Historiako funtsezko une bat izan zen hura. Teknologiako aurrerapenen eta, orobat, industriako iraultzari lotuta zeuden ideologia produktibistaren eta kontsumistaren ondorioz, gizarteek aldaketa larriak eragin dituzte ingurune naturalean, eta aldaketa horiek sekula baino gogorragoak izan dira azken hamarkadetan. Horrek guztiak krisialdi ekologikoa eta zibilizazio osoaren krisia ekarri du (Garrido, 2007: 31). Ingurumenean izan diren aldaketa horiekin batera, herrialde industrializatuetan hazkunde ekonomiko nabarmena izan da, eta mundu osoko biztanleria neurriz gain ugaldu da. Ez dugu ahaztu behar ezinezkoa izango zela ekonomia eta biztanleriaren hazkunde-maila horiek lortzea petrolioa eta ikatza bezalako lehengai ugariak eta merkeak eskura izan ez balira, lehengai horiek ezinbestekoak izan baitira industrializazioko prozesuak gauzatzeko.

Hala ere, azken lau hamarkadetan, argi ikusten ari gara ingurumenean izandako aldaketa horiek eragin dituzten kostuak, batez ere baliabideak eskasten ari direlako, baina prozesu arautzaileak hondatzen ari direlako ere bai, esate baterako, airea eta ura arazteko prozesuak, eskualdeko eta tokiko klima arautzekoak, edo natura- eta osasun-arriskuak (Onaindia, 2007: 42). Biodibertsitatearen galera, eta basamortu bihurtzeko eta basoak soiltzeko prozesu mehatxagarriez gain, energia- eta elikadura-arloan dauden krisiak nabarmendu behar ditugu, horiek baitira gizateriak aurrez aurre duen arazorik larrienetako bat. Izan ere, harreman estu-estua dute ingurumeneko gainerako arazoekin, eta gizarte-arloko ondorio larriak ekartzen dituzte berekin. Erregai fosilen gehiegizko erabilerak ekarri duen energia-krisiak eta, orobat, elikagaien krisiak erabakigarriak izango dira etorkizunean, nazioarteko erabaki politikoak hartzean eta, beraz, lankidetzako proiektuen norabidea finkatzerakoan (ikusi 2. koadroa).

Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioari buruzko Nazio Batuen txostenaren arabera (Millennium Ecosystem Assessment, 2005), aztertutako ekosistemetako zerbitzuen %60 hondatzen ari da, edo iraunkorra ez den modu batean erabiltzen da: ur geza, harrapaketako arrantza, arrisku naturalak eta izurriteak eta abar. Horrez gain, *ekosistemetan izan diren aldaketen ondorioz, linealak izan beharrean bat-batekoak izango diren aldaketak izateko aukera handitzen ari da*; eta horrek esan nahi du, zalantzarik gabe, gaur egungo biztanle askok aukera ugari galduko dituztela, bai eta etorkizuneko belaunaldiek ere. Esate baterako, gaixotasunak azalduko dira, uraren kalitatea bat-batean aldatuko da, itsasaldeko uretan «hilda dauden alderdiak» ageriko dira, arrantza-tokiak desagertuko dira, eta eskualdeetako klimak aldatuko dira; eta horrek guztiak ondorio larriak izango ditu gizakiaren ongizateari begira. Izan ere, eragina izango du tokiko biztanleen osasunean, edo ekoizteko eta oinarrizko iraupenerako sistemetan. Lurzoruek aberastasuna galtzen badute —dela zuzenean kutsatzen direlako, edota gazitu edo higatu egiten direlako—, hori kaltegarria izango da nekazaritzarako, eta, beraz, munduko biztanleriaren zati handi batek arazoak izango ditu elikatzeko garaian, nekazaritza oinarri-oinarrizko ekoizpen-baliabidea baita. Bestetik, ekosistemen eta, hortaz, haien zereginen eta zerbitzuen narriadurak, beharbada, askoz okerragora egingo dute mende honen lehenbiziko zatian, eta hori oztopoa izan daiteke Milurtekoko Garapenerako Helburuak lortzeko, esate baterako, pobrezia edo gosea gutxitu ahal izateko. Lehengo irudian jasota dagoenez, ezinbestekoa da dimentsio ekologikoa barne hartzea kudeatzeko politiketan, prozesu ekologikoak behar den moduan joan daitezen, ekosistemek zerbitzuak ekoizteko gaitasuna izan dezaten, eta, horrenbestez, gizakiaren ongizate-maila duinak lortu ahal izateko (ikusi 1. irudia).

Hala, bada, natura-baliabideak xahutzen ari gara, naturak berez ekoizteko duen gaitasuna eta karga-ahalmena gainditzen (ikusi «Muga biofisikoak, aberastasun kontzeptua eta Ipar-Hegoaren artean dagoen elkarrekiko mendekotasun ekologikoa» izeneko atala). Horren ondorioz, Lurrak etorkizune-

## 2. koadroa  *Energiaren eta elikagaien krisialdia: txanpon bereko bi aldeak*

Klima-aldaketaz gain, krisialdi energetikoak ere harreman zuzena du petrolioaren sabaiarekin edo mugarekin (ingelesez *peak oil* esaten denarekin). Inflexio-puntua da hori, hortik aurrera denbora-unitate bakoitzeko ateratzen den petrolioak ezin baitu gora egin, eskaria handia izan arren. Une horretan, gainera, guztira ateratzen den kopurua berreskuratzeko moduko kopuru osoaren erdiraino iristen da; horiek horrela, teknika- eta finantza-arloko ahaleginak eginez gero, gainbehera doan tasa leundu daiteke, baina ezinezkoa da ateratako kopuruak behera egiteko dagoen joera aldatzea. Aldi berean, 1999. urtetik hona, petrolioaren prezioak goraka joan dira, alde batetik, eskaerak berak eta handiagoa den eskaera hori asebetetzeko dauden petrolio-hobi berriek gero eta gaitasun gutxiago dutelako joera horri aurre egiteko, eta, bestetik, espekulazioaren ondorioz (Bermejo, 2008).

Arrazoi horiek direla-eta, planetan barrena gero eta gehiago dira petrolioaren kostua beren gain hartu ezin duten eskualdeak, eta, hortaz, eskualde horietako jarduerak eta ekonomiak ahulduta geratzen dira. Horiek horrela, berotegiefektuko gas-isurketak gutxituko dira, baina, aldi berean, tentsioek gora egingo dute baliabideen gabezien ondorioz.

Gas naturalaren eta, batez ere, petrolioaren prezioetan izandako igoerak, azkenean, eragina izan du elikagaien prezioetan, eta horixe izan da, izan ere, 2008. urtearen hasieran abian jarri den elikagaien krisialdiaren azpian dagoen eragileetako bat. Munduko elikagaien krisialdiaren azpian dagoen beste eragile bat hauxe da: sortzen ari diren herrialdeetako dieta haragijalea dela gehienbat, gero eta haragijaleagoa gainera, eta, horrez gain, lehen belaunaldiko bioerregaien eskaera igo dela.

Ez dugu ahaztu behar gaur egun nekazaritza intentsiboa dela gehien hedatuta dagoena, eta haren ekoizpenerako energia fosilaren kopuru handiak erabili behar direla (nekazaritzako makineriarako, ongarriak ekoizteko, ura ponpatzeko, garraiorako, industriako manipulaziorako, eta abar). Ondo frogatuta dago *elikagaien krisiak eta krisialdi energetikoak estuki lotuta daudela*. Hortaz, bada, petrolioaren eta beste erregai fosil batzuen mugaren aurrez aurre, beharbeharrezkoa da nekazaritzako sistema berregituratzea, eta, ildo horretan, kontsumo energetikoa eta elikagaien mugikortasuna gutxitzea. Horretarako, tokiko merkatuak eta energian hain intentsiboak ez diren nekazaritzako ereduak sustatu behar dira, hala nola, familiako nekazaritza eta ekologikoa.

Iturria  Geuk egina, Bermejoren lana oinarritzat hartuta (2008).

## 1. irudia  *Dimentsio ekologikoa kudeatzeko politiketan barne hartzearen eta gizakiaren ongizatearen artean dagoen harremana*




Iturria  Millennium Ecosystem Assessment (2005).

ko belaunaldiei mantenua emateko duen gaitasunak behera egin du, eta horrek ondorio larriak ditu gaur egun planetako herrialde eta eskualde askoren artean dauden desberdintasunei begira (González eta beste batzuk, 2008). Ezin dugu ahaztu naturako ondasunez egiten den erabilera ez dela iraunkorra, alde batetik, neurriz gaineko kontsumoa dagoelako, eta, bestetik, *ondasun horiek gizakien sektore desberdinen artean banatzeko modua ez delako orekatua*. Herrialde industrializatuetan mundu osoko biztanleria osoaren %15 bizi da, kontinente-azaleraren laurden bat inguru betetzen dute, eta munduko energia fosilaren %50 kontsumitzen dute, nahiz eta petrolioko erreserben %5 eta gas naturaleko erreserben %8 baizik ez eduki (Sachs eta Santarius, 2007: 53-106). Elikadurako ondasunen egoerari dagokionez, nabarmena da munduan kontsumitzen den haragiaren eta arrainaren heren bat herrialde industrializatuetan egiten dela, nahiz eta herrialde horiek proportzioan biztanle gutxiago izan. Era berean, deigarria da produktu horien kontsumoak gora egin duela azaltzen ari diren herrialde batzuetan, hala nola, Txinan. Bestalde, kafearekin eta kakaoarekin gertatzen dena azpimarratu behar dugu; izan ere, produktu horien bi heren Iparrean kontsumitzen dira, baina produktu horiek Hegoan baizik ez dira ekoizten (ibidem). Horrek argi erakusten digu Iparrak zuzenean edo zeharka bereganatzen dituela Hegokoak diren baliabide naturalak (hala berriztagarriak, nola bestelakoak) eta ekosistemetako zerbitzuak. Era horretan, gatazka larriak pizten ditu gizartean, batez ere Hegoko biztanleekin eta/edo indigenekin (ikusi, adibidez, Latinoamerikan nekazaritzako erregaiei loturik azaldu diren arazoak [Marcellesi, 2008a]). Estevak argudiatzen duenez, nagusi den dinamika ekonomikoak ahalegina eta borroka egiten du gobernuak menpean jartzeko, eta bere logikaren azpian sartzeko indarrez hartzen dituen gizarte guztietan dauden gizarteko elkarrekintzako bestelako formak (2004: 88).

Ingurumena suntsitzeko eta baliabide naturalak xahutzeko erru nagusia batez ere botere ekonomiko gehien duten taldeei eta herrialdeei[2] leporatu ahal diegu; eta, bestalde, naturako baliabideak neurriz gain erabiltzeak sorrarazi dituen mozkinak Iparrean eskuratu dituzte gehienbat. Aitzitik, krisialdi ekologikoaren ondorio txar gehienek Hegoko herrialdeak kaltetu dituzte eta kaltetzen dituzte oroz gain. Izan ere, *ingurumeneko krisien aurrean dagoen urrakortasun-maila gizarte batetik bestera aldatzen da*, eta, era berean, gizarteko osagaien urrakortasun-maila ere aldatzen da, *bakoitzak krisialdi horien ondorioei aurrea hartzeko eta leuntzeko eskura dituen baliabideen arabera*[3] (Duarte eta beste batzuk, 2006: 105). Hala, bada, gaur egun, Hegoko biztanle txirotuek eta Iparrean gizarteko egoe-

ra ahulean dauden taldeek dira krisialdi ekologikoa dela-eta kalte gehien hartzen dutenak eta, orobat, krisi horren ondorioen aurrean ahulen agertzen direnak. Hori hala da, biztanleriako sektorerik txiroena delako, hain zuzen, ingurumenarekiko mendekotasun gehien duena eta natura-baliabideen erabilera gehien egiten duena, baliabide horien bidez eskuratzen baititu elikadura, babesa, sendagaiak, bizitzeko baliabideak eta diru-sarrerak izateko aukerak. Egoera hori areago larritzen da gizartean egoerarik ahulenean eta hauskorrenean dauden taldeekin, esate baterako, emakumeekin. Izan ere, emakumeek, oro har, ez dute baliabide pribaturik izaten, zeregin bat bete behar dute gizartean, beren gain hartu behar dute familia eta taldea zaintzeko eta hornitzeko ardura, eta, horrenbestez, mendekotasun gehiago dute erkidegoak kudeatzen dituen natura-baliabideekiko (ikusi 3. koadroa). Krisialdi ekologikoak berekin ekartzen dituen arrisku ugarien aurrean, areago nabarmentzen dira gizartean dauden desberdintasunak, zeren gizarteko egoerarik ahulenean dauden taldeek (txiroek, zaharrek, emakumeek, haurrek, herrialde indigenek eta beste batzuek) baliabide gutxiago baitute eskura krisialdi ekologikoaren ondorioak leuntzeko eta haiei aurre egin ahal izateko, eta, gainera, baliabide ekonomiko gutxiago izateaz gain, informazio, hezkuntza edota autoestimuari lotutako baliabide gutxiago dute (ibidem: 8. kap.).

Hala ere, krisialdiaren ondorioak gero eta nabariagoak dira, eta, beraz, Iparreko gizarteak ere hasi dira nozitzen ekosistemak hondatzeak eta baliabideak zentzuzkoa ez den era batean erabiltzeak ekartzen dituen kalteak: ingurumenari lotutako eragileek sorrarazitako gaixotasunek eta patologiek gora egin dute (minbiziek, arnasteari lotutako gaitzek eta abar), arrazoi ekologikoen ondorioz iritsitako etorkinen fluxua handiagoa da (NBEren arabera, XXI. mendeko migrazioen arrazoi nagusia ingurumenari lotutako arrazoien ondorioz lekuz aldatutako etorkinak izango dira), klimari lotutako gertalari batzuek (esate baterako, uholdeek, urakanek edo lehorteek) ondorio larriagoak dituzte, eta abar. Izan ere, 2008. urtean mundua astindu duen krisialdi ekonomikoak harreman estua du orain arte nagusi izan den eta iraunkorra ez den garapen-moldearekin, eta, orobat, horrek sorrarazten duen baliabide aldeko urritasunarekin, batez ere, petrolioaren gabeziarekin.[4]

Ingurumen aldeko kontsumoa, beraz, gizakiaren eta naturaren artean dauden harremanak zehazteaz gain, gizakien artean dauden harremanak ere finkatzen ditu (Sachs eta Santarius, 2007: 44). Hala, bada, gizarteko gatazkak —gerrak ere bai, gerrak baitira, izan ere, gatazken muturreko adierazpena— ugaltzen ari dira krisialdi ekologikoaren ondorioz (Duarte eta beste batzuk, 2006: 8. kap.). Ingurumeneko ondasunak eta baliabideak gero eta urriagoak direnez, lehiakortasunak gora egiten du, bazterkeriaren arazoa larriagotzen da, oinarrizko produktuak garestitu egiten dira edo kalitatea galtzen dute, eta interes estrategikoa duten beste lehengai batzuen prezioa ere igotzen da. Izan ere, «zantzu askori erreparatzen badiegu, argi dago krisialdi ekologikoaren eta petrolioa, ura edo metal preziatuak bezalako lehengai estrategikoen inguruan piztu diren gatazken globalizazioa dela aspalditik "baliabideak eskuratzeko gerren garaia" hasi dela adierazten digun seinalea eta indar eragilea» (Michael Klare, hemen: Sachs eta Santarius, 2007: 7). Esate baterako, ura funtsezko gakoa da gaur egungo gatazka eta gerra askotan (adibidez, arabiarren eta israeldarren arteko 1967. urteko gerran). Izan ere, munduko biztanleria osoaren heren bat tentsio handien mende dago uraren urritasuna dela-eta (IPCC, 2002); eta uraren urritasun hori uraren kudeaketa, erabilera eta banaketa txarraren ondorioa da, eta erabilera txarra horrek areago larriagotzen du arazoa. Lehiakortasunaren, segurtasun-gabeziaren eta tentsio politikoaren aurrez aurre jarririk, planeta osoan dagoen elkarrekiko mendekotasunak agerian uzten du lankidetzan aritu behar dugula sinergiak sortzeko eta baliabide naturalak era egokian kudeatzeko, hori lagungarria izango baita gatazkei aurrea hartzeko. Ez dugu ahaztu behar ingurumeneko baliabideen kudeaketa iraunkorra onuragarria dela gizarte-maila eta eskualde desberdinen artean konfiantza piztu dadin, eta, era horretan, ona izan daitekeela egonkortasuna eta bakea lortzeko. Hortaz, bada, lanean aritzen baldin bagara biodibertsitatea eta naturako baliabideak zaintzeko eta, horrenbestez, ekosistemen funtzioak eta zerbitzuak babesteko, eta, aldi berean, onartzen baditugu Hegoko biztanleen «kultura-, ekologia- eta ekonomia-arloko jarduteak eta arrazionaltasunak», era horretan, justiziaren eta bakearen alde egingo dugu lan (Escobar, 2004: 171).

## 3. koadroa *Generoa, ingurumena eta iraunkortasuna*

Gizonek eta emakumeek gizartean betetzen dituzten postu desberdinen ondorioz eta, era berean, ingurune naturalari buruz tradizioz izan duten ezagutza desberdinaren ondorioz, batzuek zein besteek zeregin eta ikuspegi desberdinak dituzte natura-baliabideak erabiltzeari eta kudeatzeari dagokionez. Tradizioz, genero femeninoa lurrari eta emankortasunari loturik egon da; era berean, gaur egun nagusi diren genero maskulinoaren balioak indarrari, lehiakortasunari eta oldarkortasunari loturik daude. Azken batean, iraunkortasunaren kontzeptuak gehiago hartzen ditu oinarritzat genero femeninoari lotura azaldu diren balioak, esate baterako, begirunea, ulermena, babesa, elkartasuna eta abar (Mies eta Shiva, 1993).

Sarritan, emakumeek gizartean dagokien zeregina bete behar dutenez, familiaren eta taldearen hornikuntzaz arduratu behar dute, eta, hala, baliabide materialak eta energetikoak eskuratu behar dituzte (PNUMA, 2004). Tradizioz esleitu zaion eginkizunari jarraiki, emakumeak familiaren ongizateaz arduratu behar izan du; eta, hortaz, emakumeek argi eta garbi zehaztuta dauden zereginak betetzen dituzte, esate baterako, hauek:

- Basoetako fauna eta landarediaren, lur elkorren, hezeguneen eta nekazaritzaren antolamenduaz arduratzen dira.
- Ura, erregaiak eta bazka biltzen dituzte, etxean erabiltzeko eta diru-sarrera gisa ere baliatzeko.
- Lurrak eta ura zaintzen dituzte.

Urik, elikadurarik edo erregairik ez baldin badago, emakumeak izaten dira beharrizan hori adierazten duten eta irtenbideak bilatzen hasten diren lehenengoak. Zeregin horiek betetzen dituzten bitartean, beren denbora, indarra, gaitasunak eta ikusmolde bereziak sartzen dituzte, familien eta erkidegoen garapena lortze aldera. Hala, bada, oinarrizko eginkizuna betetzen dute, iraunkorrak eta ekologia aldetik arduratsuak diren ekoizpen- eta kontsumo-moldeak prestatzeko lanetan. Oro har, emakumeek mendekotasun gehiago dute jabetzako baliabideekiko eta erkidegoak kudeatzen dituen baliabideekiko, emakumeek ez baitute baliabide pribaturik, eta, beraz, baliabide horiek babesteko joera izaten baitute. Joera horiek areago nabarmentzen dira txiroak diren erkidegoetan, mendekotasun zuzenagoa baitute naturako baliabideekiko. Hortaz, bada, ingurumena kudeatzeko eta biodibertsitatea zaintzeko lanetan duten esperientzia ikusita, emakumeak iturri garrantzitsua dira ezagutzak ikasteko, balioetsi eta sustatu behar den iturria (ibidem).

**Iturria** Geuk egina, PNUMA (2004) eta Mies eta Shiva-ren lana (1993) oinarritzat hartuta.

## Muga biofisikoak, aberastasun kontzeptua eta Ipar-Hegoaren arteko elkarmenpekotasun ekologikoa

Lankidetzaren esparruan, gero eta gehiago onartzen ari da —bai, behintzat, paperaren gainean— iraunkortasunak duen garrantzia, eta, era berean, beste garapen-molde batzuk daudela. Hala, bada, Rostow-en[5] garapenari buruzko teoria klasikoaren alderdi batzuk gainditu joan dira, eta horren ondorioz, adibidez, *garatutako herrialdeak* eta *azpigaratutako herrialdeak* izenak erabili beharrean, egokiagoak diren beste izen batzuk erabiltzen dira (hala nola, Ipar-Hegoa, aberastutako-txirotutako herrialdeak...). Aurrerapen horiek izan diren arren, oraindik ere Rostow-ek azaldutako garapen-ereduak eragina izaten du lankidetza prestatzeko moldeetan: nolabait ere, gizarteak, eta bereziki lankidetzaren esparruak, onartu eta barneratu du diskurtso ekonomista eta deterministaren zati handi bat, eta, beraz, maiz uste izaten da gutxiago industrializatuta dauden gizarteen helburua hauxe dela: industrializatuago dauden gizarteek duten «garapen» maila lortzea, hartara, eskuratu nahi diren ongizatea eta zoriontasuna izateko. Alabaina, norabide bakar baterantz zuzenduta dagoen pentsamolde hori ikusita, galderak sortzen dira, zalantzan jartzen dira pentsamolde horren oinarrizko ikuspegiak, agerian jartzen dira pentsamolde horren azpian dauden iritzi oker batzuk, eta agerian jartzen dira teoria horrek aintzat hartzen ez dituen hainbat gai garrantzitsu.

**Muga biofisikoak.** Lehenik eta behin, bistakoa da, gaur egungo garapen-ereduak duen ikuspegi harrapariaren ondorioz, gizateria natura-baliabideak erabiltzen ari dela, sistema naturalak baliabide horiek ordezkatzeko behar duen abiada baino azkarrago joanez. Kontuan izan behar dugu, «baliabideen erabilera eta hondakinen ekoizpena ez daudela bakarrik biztanleriak duen garrantziaren mende, hainbat alderdiren emaitza bateratua baitira: biztanleriaren, ekoizteko sistemen eta kontsumitzeko moduen emaitza» (Biztanleriari eta Bizitza Kalitateari buruzko Batzorde Independentea, 1998), baina, hala ere, *gaur egun, planetak bere burua birgaitzeko duen gaitasuna eta karga-ahalmena gainditzen ari gara.* Bestela esanda, gainditzen ari gara gaur egungo ekoizpen- eta teknologia-sisteman era iraunkorrean gizateriak ingurumenari, gizakiaren jarduerari eutsi ahal izan diezaion eta birgaitu ahal izan dadin, ezarri ahal dion gehieneko karga. Ildo horretan, hainbat ikerketaren arabera, kapital naturala murriztu da, nagusi den garapen-motak ez baititu aintzat hartzen planetak dituen muga biofisikoak.[6] WWF-ren *Informe Planeta Vivo 2008* izeneko txostenari jarraiki (2008), adibidez, gizateriaren aztarna ekologikoa gaindika bikoiztu da 1961. urtetik hona, eta, hala, gaur egun ia %30ean gainditzen du planetak berez birgaitzeko duen gaitasuna. Egoera hori larria izan arren, gaur egun nagusi diren garapenari buruzko teoria gehienek ez dituzte muga biofisikoak kontuan hartzen; eta, joera horren adierazgarri gisa, ekonomialariak ere ingurumen-arloko arazoak onartzen hasi dira, zentzugabeko konfiantza erakutsiz *Kuznets-en ingurumeneko kurba* izenekoan.[7] Alabaina, teoria horrek ez du balio epe luzeko eraginak eta ondorioak eta kostu barreiatuak dituzten kutsatzaileekin erabiltzeko, ez du aintzat hartzen beste espezie batzuk eraldatu ahal direla, eta ez du ikasten berriz ekoiztu ezin diren baliabideen bilakaera (Arrow eta beste batzuk, 1995; Bermejo, 2002).

Bestetik, sistema sozioekonomikoak bere ingurunearekin duen harremanaren oinarrian naturaren instrumentalizazioaren ideia eta aurrerapen teknologikoan dagoen eta ia itsua den sinesmena daude. Era horretan, nagusi den ideologiak oinarritzat hartzen duen ideia naturatik kanpo dagoen gizaki bat da, natura menderatu eta azpiratu nahi duen gizaki bat —ikuspegi positibista horretatik abiatuta—.

Alabaina, naturako prozesuekin eta teknologiak berez dituen mugekin dauden elkarrekiko mendekotasuna eta harremana bazter uzten direnez, *homo economicus-a* irtenbiderik gabeko bide batean sartu da, suntsipenerantz doan bide batean, planeta birrintzen eta bere existentzia bera zalantza jartzen ari baita (Daly eta Cobb, 1989). Hala, ekosistemek jasaten duten presioak eta energiaren kontsumoak larriki gora egin dutenez —nahiz eta sistema teknologia aldetik gero eta eraginkorragoa izan—, produktu-ale bakoitzeko behar den natura-baliabideen kopuruak ez du behera egiten aurrerapen teknikoak aurrera eginda ere (Marcellesi, 2007); eta, bestalde, kapital teknikoak ezin du kapital naturala ordezkatu, biek ala biek osagarriak izan behar baitute (Martínez Alier, 1995: 15).

Fruituak eman dituen garapen-ereduak Lurrak amaierarik ez duela aldarrikatu du, eta teknologia bultzatu du kapital naturala ordezkatzeko. Hala ere, sistema horren aurrez aurre, «bioekonomia» edo ekonomia ekologikoaren[8] oinarriek diotenez, ekonomia ez dago inguruan duen sistematik bereizita, hau da, ez dago biosferatik bereizita; eta, beraz, ekonomiak, azpisistema bat den aldetik, biosfera arautzeko dauden tresnak bete eta zaindu behar ditu garatzerakoan, eta ez du alderantziko ordenarik ezartzen ahalegindu behar. Hala, bada, giza garapen iraunkorra bakarrik lortuko dugu inguruan dauden giza eta natura-eremuak arautzen dituzten tresnak zaintzen baditugu (ikusi 2. irudia). Hortaz, etorkizuneko belaunaldiei mundu bideragarri bat utzi nahi badiegu oinordetzan, lankidetzako proiektuek sarrerako eta irteerako arauak bete beharko lituzkete (Goodland eta Daly, 2006, hemen: González eta beste batzuk, 2008):

- *Sarrerako araua:* zerbitzu berriztagarrien erauzte-tasak beti egongo dira haiek sortzen dituzten ekosistemek birgaitzeko duten gaitasun-mugen barruan; eta berriztagarriak ez diren zerbitzuei dagokienez, haien agortze-tasak eta teknologiaren eta inbertsioaren bidez dauden hautabidezko zerbitzuetan dauden tasak berdinak izango dira.
- *Irteerako araua:* hondakinak isurtzerakoan, ekosistemak hondakin horiek bereganatzeko duten gaitasun-mugen barruan egon beharko genuke beti.

**Aberastasun kontzeptua berriz definitzea.** Gaur egungo garapen-eredua ekoizpenean eta jendetzaren kontsumoan oinarrituta dago —eta haren ardatza mendebaldeko kultura garaikidea da—, eta eredu horrek lehen bezalaxe jarraitzen du, pertsonen ongizatea gero eta material gehiago pilatzeko prozesuarekin parekatzen. Horren adierazgarri gisa, gaur egun «nazioaren aberastasuna» kalkulatzeko, barne produktu gordina (BPGd)[9] kalkulatzen da, baina tresna hori partziala da, aberastasun emankorrak deitutakoak baizik ez baititu aintzat hartzen eta ez baititu kontuan izaten gizarte- eta ekologia-arloko aberastasun guztiak (Marcellesi, 2007), eta, bestalde, bereizi egiten baititu herrialde aberatsak eta txiroak ekoizteko eta kontsumitzeko duten mailaren arabera.[10] Hala ere, barne produktu gordina kalkulatzerakoan, ez dira aintzat hartzen kanpoko alde onuragarriak (borondatezko lana, etxeko lana, eta abar), ez eta kanpoko alde kaltegarriak ere (ingurumenaren kutsadura, gizartean dauden desberdintasunak, etab.), eta gastu guztiak onuragarritzat jotzen dira, ongizatean eragin txarra duten jarduerak ere bai (adibidez, trafikoko istripuak).

Bestalde, aberastasun eta txirotasun kontzeptuei dagokienez, alde batetik, material- eta diru-arloan dagoen egoerak baldintzatzen ditu, eta, bestetik, gizabanakoek eta gizarteek duten pertzepzioaren arabera, eta elkarteen eta denboraldien arabera aldatzen dira (Naredo, 2008: 43), zoriontasun kontzeptuarekin eta haren pertzepzioarekin gertatzen den bezala. Izan ere, gizakiek duten ongizate-maila zehatzago finkatzen dute gizaki horiek beste gizaki batzuekin eta ingurunearekin harremanetan jartzeko dituzten moduek, eta, azken batean, gizakiek dituzten beharrizanak betetzeko moldeek; eta hori, besteak beste, ekosistema naturalek egiten dizkiguten zerbitzuei eta ematen dizkiguten zerbitzuei esker lortzen da.

Horiek horrela, azken urteetan hautabidezko indize batzuk ugaldu dira, eta indize horiek ikuspegi zabal batetik islatu nahi dituzte bizitza-kalitatea edo gizakien ongizatea, arlo ekonomikoa eta materialak bakarrik barne hartzen ez

## 2. irudia *Garapenaren ikuspegi desberdinak eta haien iraunkortasun-maila*

| | Teoria (neo)klasikoak | Adostasunezko ikuspegia | Ekonomia ekologikoaren teoria |
|---|---|---|---|
| Diskurtsoa | Hazkunde ekonomiko iraunkorrik ez badago, ez dago ingurumenaren babesik (ez eta gizarte-babesik ere). | Ingurumenaren babesa, gizarte-arloko berdintasuna eta hazkunde ekonomikoa bateratu behar dira. | Biosferak bere burua birgaitzeko duen gaitasuna eta karga-ahalmena aintzat hartzen ez badugu, ez dugu giza sistemaren iraunkortasuna lortuko. |
| Lehentasuna | Ekonomikoa. | Joeraren arabera. | Sozioekologikoa. |
| Ikuspegia | Epe laburrekoa. | Epe ertainekoa. | Epe luzekoa. |
| Iraunkortasun-maila | Ahula. | Ertaina. | Sendoa. |
| Iraunkortasunaren ikusmoldea Dobson-en arabera | A. | B eta C. | D. |




Iturria Geuk egina.

duen ikuspegi zabalago batetik. Hala, 1990. urtean, Amartya Sen-ek egindako hausnarketa oinarritzat hartuta eta Nazio Batuetako Garapen Programak (PNUD) bultzatuta, giza garapenaren indizea (GGI) sortu zen. Horrek, alderdi ekonomikoak kontuan izateaz gain, beste alderdi garrantzitsu batzuk ere hartzen ditu aintzat, hala nola, hezkuntza eta biztanleek duten bizi-itxaropena. Indize horrek duen garrantzia eztabaidatzeari ekin gabe, bistan da indizea une gogoangarri bat izan dela nazioarteko lankidetzaren arloan, eta, era berean, azpimarratu behar da *giza garapenaren indizea ez dela aski, ez baititu kontuan hartzen ingurumenari lotuta dauden arazoak*. Hala, beraz, ekosistemen balioa zenbatesteko erabiltzen diren metodoen inguruan zailtasuna eta ziurgabetasuna egon arren, era egokian balioetsi behar dugu sistema ekologikoek ekonomiari egiten dioten ekarpena, hartara, benetako kapital natural horren mende dagoen gizartea ez deskapitalizatzeko. Ildo horretan, irizpide askotako adierazle eta indize batzuk prestatu dira, aberastasunaren osoko balioespena egiteko eta, orobat, sistema sozioekonomikoek ingurumenean duten inpaktua balioesteko (ikusi 4. koadroa).

Azkenik, ekosistemen zerbitzuen monetarizazioari buruz dagoen eztabaida gainditze aldera, aditzera eman behar dugu auzi ekologikoak agerian jartzen duela naturak berezko balioa duela, eta, hori dela-eta, azterketa ekonomikotik kanpo eta erabaki politikoaren barne geratzen dela. Auzi ekologikoa auzi etiko bilakatzen denean, garrantzitsua da baldintzen esparru orokor bat izatea (iraunkortasuneko mugak), esparru horren barnean erabaki ekonomikoak hartu ahal izateko, eta argi izateko azken erabakia politikoa dela eta bide demokratikoak baliatuz hartzen dela, tartean dauden kaltetutako interes guztiak aintzat hartuta (Riechmann, 2006: 10). Nazioarteko lankidetzaren esparrura eramanda, horrek esan nahi du programak eta proiektuak burutzeko, ingurumeneko inpaktuaren ebaluazioak egin beharko liratekeela (inpaktu-maila jakin batetik gora), monetarizatzeko modukoak diren eta ez diren onurak zenbatu beharko liratekeela, eta erabakiak hartzeko prozesu osoan onuradun zuzen eta zeharkako guztien ordezkaritza egon beharko litzatekeela, ekosistemen zerbitzuek duten balioak zenbatesteko (inkesta publikoen, parte hartzeko prozesuen bidez, eta abar).

■ **Ipar-Hegoaren arteko elkarrekiko mendekotasuna.** Garapenari buruz hitz egiterakoan, normalean nagusi diren teoriek ez dute kontuan izaten —ikusmolde klasikoari jarraiki— *ez dagoela «garapenik» «azpigarapenik» gabe, eta alderantziz.* Iparreko herrialdeetan lortu den hazkunde-maila eskuratzea guztiz ezinezkoa izango zen Hegoko herrialdeen giza baliabiderik eta natura-baliabiderik gabe, hau da, ezinezkoa izango zen Iparreko herrialdeek planeta osoko ekoizpen primarioaren zati gehiena berenganatu izan ez bazuten. Era berean, Hegoko biztanleak ez ziren gaur egungo egoeran egongo, alegia, ez ziren bidegabekeriaz eta desberdintasunez beterik egongo, Iparrean izan den hazkunde-mota egon izan ez balitz, eta Hegoko buruzagiak eta enpresaburuak hazkunde-mota hori imitatzen saiatu izan ez balira. Wallerstein sistema-munduaren azterketan dagoen teorialari nagusietako bat da (1979, 2006 eta 2007), erdigunearen eta periferiaren artean dagoen harremana aztertu du mundu-mailan; eta, berak dioenez, mundu bakar bat dago, truke ekonomikorako harremanen sare konplexu batez lotuta. Soziologo horren arabera, sistema-munduan erdigune bat dago, erdigune horrek mundu osoko aberastasuna zuzentzen eta metatzen du, eta periferiatik hedatzen da. Periferia, bestalde, sistematikoki ustiatzen eta esplotatzen da, eta, erdian, erdiperiferia dago, eta zentro berriak sustatzeko aldi baten modukoa da. Truke ekonomikoko harreman horiek onartuta, nabarmena da industriako zibilizazioa ezin izango zela den eta ezagutzen dugun moduan eratu, ezinbestekoak diren baliabideak eskura izan ez balitu, hau da, lurrazaleko erregai fosilak, koloniak izandako lurretatik ateratako baliabide biotikoak eta haiei lotutako gune geografikoaren mugagabetasuna eskura izan ez balitu (Sachs eta Santarius, 2007, 5. kap.). Era horretan,

## 4. koadroa *Ingurumeneko eta irizpide askotako adierazleak*

Azken urteetan, ingurumenaren aldagaia barne hartzen duten adierazle batzuk garatu dira:

- *Aztarna ekologikoa*. Indize hau Mathis Wackernagel-ek eta William Rees-ek asmatu zuten laurogeita hamarreko hamarkadan, eta, haren bidez, gizakien gizarte batek biosferan duen inpaktua kalkulatzen da, hau da, erabiltzen ditugun baliabideak sortzeko eta gure hondakinak ezabatzeko behar den eta biologikoki emankorra den itsas eta lehorreko arloa neurtzen da. Indize honek ez ditu kontuan hartzen gizakiak ingurunean eragiten dituen inpaktu batzuk, baina, hala ere, aukera ematen digu ekoizteko eta kontsumitzeko molde desberdinek duten inpaktu ekologikoa erkatzeko.
- *Benetako aurrerapenaren indizea*. Ezagunagoa da ingelesez dituen siglekin (Genuine Progress Indicator [GPI]), hautabidezko indize bat da, eta aurrerapena ikuspegi zabalago batetik neurtzen ahalegintzen da. Kalkulua egiteko, alde batetik, kutsadura eta baliabideen narriadura, krimena eta irabaziek eragindako bestelako ezbehar ekonomikoak kentzen dira, eta, bestetik, borondatezko lana edo seme-alaben hazkuntza bezalako onurak gehitzen dira (informazio gehiago hemen: <http://www.rprogress.org>).
- *Well-Being Index indizea (NWI)*. Vemuri-k eta Costanza-k (2006) proposatu zuten indize honek nazioko ongizatea kalkulatzen du, eta kapital naturalaren balioa hartzen du barne. Egile horiek lanean jardun dute garapeneko indizeen eta biztanleen asebetetze-mailaren artean dagoen harremana aztertzeko. Argi frogatu dutenez, giza garapenaren indizea (hau da, giza kapitala gehi eraikitako edo fabrikatutako kapitala) eta ekosistemetako zerbitzuen balioaren indizea (kilometro koadro bakoitzeko dagoen balioa, kapital naturalaren baliora egindako hurbilpen gisa) oso eragile garrantzitsuak dira ongizate eta asebetetze-maila azaltzeko aztertu diren herrialdeetan.
- *Happy Planet Index indizea (HPI)*. Gizakiaren ongizateari buruzko eta ingurumeneko inpaktuei buruzko indize hau Ingalaterrako NEF (New Economics Foundation) elkarteak sortu zuen. Indize honek munduko hainbat herrialdetako biztanleen zoriontasun-maila neurtzen du, baina biztanle horiek duten erosteko ahalmena kontuan izateaz gain, kultura, gastronomia, bizitza-itxaropena eta, batez ere, jasaten dituzten inpaktu ekologikoak ere hartzen ditu kontuan (Marks eta beste batzuk, 2006).

Iturria Geuk egina.

## 5. koadroa *Zor ekologikoa eta Ipar-Hegoaren arteko harremanak: nork zor dio nori?*

Zor ekologikoa Iparrak Hegoarekin duen zor historikoa da, eta, gehienbat, karbonoaren zorra, biopirateria,* hondakinen trafikoa eta ingurumeneko pasiboak hartzen ditu barne. Zor ekologikoak agerian jartzen du egoera hori, eta Iparrean izan den hazkundeak Hegoan eragin dituen inpaktu txarrak zenbatzen ditu (ingurumenean, gizartean, kulturan, ekonomian eta beste arlo batzuetan sorrarazitakoak). Aukera ematen digu Ipar eta Hegoaren artean dauden desberdintasunak ikusteko, ingurumenaren ustiakuntzari dagokionez, eta inpaktu ekologikoen ondorio txarrei dagokienez (ikusi, adibidez, Martínez Alier eta Oliveras [2003] eta Russi [2003]).

Zor ekologikoaren kontzeptuak hainbat alderdi biltzen ditu batera, hala nola, ekologia aldetik desorekatua den merkataritza —merkataritza-mota horren bitartez, Iparreko herrialdeek Hegoko baliabide naturalak eskuratzen baitituzte oso kostu txikia ordainduta—, norberarena ez den ingurunea bereganatzea, eta sorraraz daitekeen kutsaduraren ondorioak nozitu gabe. Hortaz, bada, kontzeptu honek ondorio morala dakar berekin, azken batean kontua hauxe baita: Hegoko herrialdeek Iparreko herrialdeetako industrializazioari eta ekonomiari egindako ekarpenak onartzea, eta, horrez gain, agerian jartzea Iparreko herrialdeek Hegoko herrialdeekin hartu dituzten zorrak, zor horiek soberan gaindituko bailukete Hegoak Iparrari ordaindu behar dion kanpoko zor ekonomikoa.

* Biopirateria hauxe da: baliabide biologikoak eta haren deribatuak, eta, orobat, baliabide horiei lotuta dauden herrialde indigenen tradiziozko ezagutzak eskuratzea, erabiltzea eta/edo ustiatzea, legez eta arauz kanpo, eta ekitaterik gabe, bereziki jabetza intelektuala erabiliz, ezagutza edo baliabide horien gainean eskubide esklusiboak lortzeko. Informazio gehiago hemen: <http://www.biopirateria.org/>.

Iturria Geuk egina.

Iparreko herrialdeek zor ekologikoa hartu dute Hegoko herrialdeekin (ikusi 5. koadroa). Bestalde, Ipar globaleko gizarte industrializatuek hortxe irauten dute, eta hazi ere egiten dute, Hegoko ekoguneetan gero eta azalera handiagoak erabiltzen dituztelako baliabideak lortzeko, eta haien kutsadura eta hondakinak han uzteko (Mosangini, 2008). Hortaz, aberastutako herrialdeen garapena, neurri handi batean, txirotutako herrialdeen ekosistemetan oinarrituta dago, eta, beraz, *ekosistemak zaintzea ardatz gisa hartzen duen lankidetza ez da bakarrik herrialde emaileen betebehar etiko bat: benetako beharrizan bat ere bada* (González eta beste batzuk, 2008).

Elkarrekiko mendetasun hori onartzen badugu, gainera, onartu beharko dugu gaur egungo metropoliko zentro handiek (Estatu Batuek, Europak, Japoniak) izugarrizko baliabide mordoa kontsumitzen dutela, baina kontsumo izugarri hori ezin dela munduko leku askotan errepikatu eta, nolanahi ere, ezin dela hedatu planeta osoko gainerako herrialdeetara, hainbat egilek esan dutenari jarraiki (adibidez, Sachs eta Santarius, 2007; Naredo, 2008; Meadows, Meadows eta Randers, 2006). Alde euroatlantikoko industria-kulturaren igoera erraztu zuten bi hornidura nagusiak —erregai berriztaezinak, eta lur-eremu izugarri zabalak eta bertan zeuden baliabide biotikoak— gaur egun ez daude eskuragarri (Sachs eta Santarius, 2007: 5. kap.). Hortaz, gaur egun ezin da inola ere imitatu industriako zibilizazioak izan duen garapen-prozesua, zeren, teknologia aldetik aurrerapenak izan badira ere eta produktibitatea hobetu bada ere, baliabideak eskuratzea ez baita hain erreza, eta horrek diru aldetik dakarren kostua ez baita hain txikia. Txinak egunero-egunero ekartzen digu gogora errealitate hori. Alde batetik, garatzeko bidean dagoen herrialde horretan eta beste batzuetan kontsumoak gora egin du, eta, bestetik, petrolioaren prezioa igo da eta hautabidezko merkatuak (nekazaritzako erregaiak) agertu dira tradizioz gizakien elikagaiak ekoiztera zuzenduta egon diren produktuetarako. Horren ondorioz, elikagaien prezioa mundu osoan barrena igotzen ari da, eta, hortaz, ziurtasun eza gero eta handiagoa da elikadura-arloan (2. koadroan ikusi dugunez).

## Garapenkeriazko eredua gainditzeko etorkizun baterantz

«Iraunkortasun sendoaren» alde egingo duen gizarte bat lortzeko, gizarteko eredu soziekonomikoek alderdi ekologikoa erabat barne har dezaten lortzeko, azken hamarkadetan hainbat teoria eta mugimendu sortu dira, eta horiek argi islatzen dute, garapen-eredu determinista alde batera utzita (garapenkeria edo produktibismo ere deitutakoa), beste bide batzuk daudela iraunkortasunerantz aurrera egiteko. Hala, *garapen iraunkor* hitza zabaldu eta hedatu bada ere, eztabaida pizten da haren inguruan, aski anbiguoa delako eta bera aplikatzeko moduari buruz desadostasunak daudelako (ikusi 6. koadroa). Gizarteko talde eta egile batzuek, batetik, gogor salatu dute botere faktikoek bereganatu egin dutela garapen iraunkor kontzeptua, eta, bestetik, eskatu dute garapen kontzeptua bera alde batera uzteko. Gaur egun *benetan dagoen garapenaren* aurrean —garapen hori, definizio aldetik, iraunkortasunaren aurkakotzat jotzen baitute—, *beherapena* edo *postgarapena* eskatzen dute, eta, horretarako, taldeko imaginarioa deskolonizatu eta desekonomizatu nahi dute (Latouche, 2008). Hitz horiek baliatzen dituzte «garapenaren bukaera» definitzeko; eta aditzera ematen dute modernitateko osagaiak eta tradiziotik oraindik bizirik dirauten osagaiak uztartu behar ditugula irudimena erabiliz. Diotenez, ezinbestekoa da munduan dagoen aniztasuna argi eta garbi onartzea, eta konpromisoa hartu behar da kultura birsortzeko prozesu luze bati ekiteko, nahiz eta prozesu hori gidatzeko inolako irizpide unibertsalik ez izan. 1992. urteko maiatzean egin zuen adierazpenean, Garapenerako Kulturako Hautabideen Nazioarteko Sareak (INCADek) neurri hauek hartzea proposatu zuen: Hegoko herrialdeetako garapen-proiektuak egiteko hartutako zor guztiak arian-arian kentzea, Iparreko herrialdeetako per capita sarrera gutxitzea 1960. urteko mailara iritsi arte, garapenerako agentzien laguntzak eraldatzea, eta ezagutza birsortzen eta eskuratzen aritzen diren deszentralizatutako kooperatiba bilakatzea, eta Ipar eta Hegoko herrialdeen artean postgarapenari buruzko kultura arteko elkarrizketa bultzatzea.

Hegoaldetik, zor ekologiko kontzeptuaren berri eman zuen Ekuadorreko Acción Ecológica izeneko gobernuz kanpoko erakundearen bultzadaz, antzeko proposamen bat iritsi da —guztiz garapenkeria ondokoa ez dena—, eta «garapen-eza» da bere izena. Proposamen horren oinarriak hauek dira: ekonomia osoaren eta gure bizitzako ereduen «urbanizazio-eza», «globalizazio-eza», «teknologizazio-eza», «petrolizazio-eza» eta «zentralizazio-eza» lortzea.[11]

Beste egile batzuek (hala nola, Meyer, 2000; Sachs eta Santarius, 2007) *uzkurtzeko eta bateratzeko eredua* bultzatu nahi dute, bi garapen-bide ardatz gisa hartuta: bide bat herrialde industrializatuei zuzenduta dago, eta ildo horretatik garapen iraunkorra lortu behar dute; eta beste bidea, berriz, hain industrializatuta ez dauden herrialdeei bideratuta dago, eta haren xedea giza garapen iraunkorrerantz zuzen joatea da. *Iparreko herrialdeetan, egindako akatsetatik ikasi behar da eta egiturazko doikuntza bati ekin behar zaio; Hegoko herrialdeetan, berriz, norabide egokia hautatu behar da hasieratik bertatik.* Eredu honen oinarrian ideia hau dago: herrialde bakoitzak dituen nahiek bateragarriak izan behar dute munduko gizartearekin eta ekologiarekin, hartara, naturaren mugak behar bezala zaindu daitezen, eta mundu osoko ingurunea eta natura-baliabideak era ekitatiboan bana daitezen munduko herritar guztien artean. Hargatik, eredu honek garapen berbera bultzatu nahi du herrialde guztietan (herrialde bakoitzaren bereizgarriak aintzat hartuta), eta, betiere, guztiona izango den helburu berbera izanik: «nazioetako ekonomiek egiten duten materialen eta energiaren kontsumoa bateragarria izatea beste herrialde batzuek dituzten nahiekin eta biosferak duen karga-gaitasunarekin» (Sachs eta Santarius, 2007: 193) (ikusi 3. irudia). Eredu honek eskaera egiten die industrializatutako herrialdeei beren kontsumo-maila altua[12] uzkurtzeko edo beren buruari eusteko, eta baliabideak zentzuko era batean erabiltzeko. Hortaz, *uzkurtzeko eta bateratzeko* ereduak zera proposatzen du: Iparrean *hautazko eta bidezko beherapena* garatzea, eta, hartara, *bakarrik bide demokratikoak* erabiliz, behar den lekuan uzkurtzeko prozesua bultzatzea, eta ahal den eta nahi den tokietan, berriz, hazkundea indartzea (Marcellesi, 2007). Era berean, zaila da zalantzan jartzea herrialderik txiroenek, besterik ez bada ere, eskubidea dutela duintasun-muga bateraino iristeko (Larrain, 2001) baliabideak erabiltzerakoan, era horretan, herritar guztiek bizitza duina bizi ahal izan dezaten, eta gizarte gisa uzkurtzen ari diren

### 6. koadroa *«Garapen iraunkorra» iraunkorra al da?*

Garapen iraunkor kontzeptua 1992. urteko Lurraren Gailurrean eman zen ezagutzera, eta, oro har, honela azaltzen da: «oraingo beharrizanak betetzea, etorkizuneko belaunaldiek izango dituzten beharrizanak arriskuan jarri gabe» (CMMAD, 1988). Garapen iraunkorra adostasun politiko baten emaitza da, «iraunkortasun gogorraren» aldekoek eta «iraunkortasun ahularen» aldekoek indarrak bateratu zituztenean lortu zen adostasunaren emaitza (ikusi lehengo 2. irudia). Hargatik, ez du batere lehentasunik finkatzen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloen artean, eta, hori dela-eta, helduleku erraza da politikan eta merkataritza-esparruan nagusi diren joerentzat: lehen «garapen iraunkorra» genuen, eta orain, aldiz, «hazkunde iraunkorra» dugu; horrela, hamaika zentzugabekeria semantiko eta teoriko sortu dira. Garapen iraunkorraren definizioak ugalduz joan dira, berrehun baino gehiago baitira; eta, ezinbestez, definizio horiek balio eta oinarri desberdinak azpimarratzen dituzte (Bermejo, 2001: 93). Ordutik hona, kontzeptua guztiz anbiguoa da eta eraginkortasuna falta zaio. Aldi berean, nolabait, inflexio onuragarria irudikatzen du planetak dituen mugei buruzko hausnarketan, eta lankidetzan oinarrizkoak diren bi kontzeptu hartzen ditu barne: espazioko eta belaunaldien arteko elkartasuna. Hegoko herrialdeei dagokienez, Brundtland txostenak «hazkundeko garai berri bati ekitea», bultzatzen du, «hazkunde indartsuko garaiari»; bestalde, erdigunetik periferiarantz hedatzen den eredua ez zabaltzea babesten du, eta barneko produktu gordina gehienez 5etik 10erako proportzioan igotzea sustatzen du.

Iturria Geuk egina.

### 3. irudia *Uzkurtzeko eta bateratzeko eredua*




Iturria Sachs eta Santarius (2007: 194).

herrialdeen eredurantz hurbildu ahal izan daitezen (Sachs eta Santarius, 2007: 195).

Gaur egungo garapen-ereduaren aurrez aurre, eta *garapen* hitzaren inguruan desadostasun teoriko batzuk badira ere, hautabidezko proposamen hauek, baterako akordioa lortu ondoren, argi eta garbi azaltzen dute ezinbestekoa dela gaur egun ekoizteko eta kontsumitzeko dauden jarraibideak gainditzea. Horrenbestez, ingurumen- eta gizarte-arloko justizia lortuko badugu, «garapenerako lankidetzak» erronka hau du aurrean: bere oinarri teorikoak berriz eraiki behar ditu, hartara, «iraunkortasunerako lankidetzarantz» aurrera egiteko; hor, gizakien ongizatea eta etorkizuna kapital naturalaren, ekosistemen osasunaren, biosferen mugen, Ipar-Hegoaren arteko elkarrekiko mendekotasunaren eta guk aberastasunari buruz dugun kontzeptuaren mende egongo dira.

# 3 Lankidetzaren eta ingurumenaren arloko lege-esparrua

Garapenerako lankidetzaren eta ingurumenaren artean dagoen harremana azaltzerakoan, ezinbestekoa da sakon ikertzea mundu osoko, Europako, estatuko eta tokiko instituzioek eta erakundeek azken berrogei urteetan prestatu duten lege-esparru zabala. Izan ere, hitzarmen, adierazpen, lege, plan zuzentzaile edo estrategia horiek argi zehazten dituzte arauzko jarraibide nagusiak, zuzenean edo zeharka, edozein autonomia-erkidegotako edo tokiko agintaritzatako garapenerako lankidetzako politiketan ezarriko diren horiexek. Atal honetan, nazioartean, Europar Batasunean, Estatu espainiarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoan dugun antolamendu juridikoa aztertu nahi dugu; eta, ildo horretan, ingurumena lankidetzaren esparruan modu horizontalean eta sektorialean barneratzeko modua, eta, era berean, ingurumenaren arloko legerian lankidetza txertatzeko era ikertuko ditugu.

## Nazioarteko adierazpenak, hitzarmenak eta helburuak: ingurumena eta lankidetza lotzeko oinarri bat

Stockholm-en 1972. urtean izan zen *Giza Ingurumeari buruzko Nazio Batuen Konferentzian egin zen Adierazpenean*, ingurumenaren eta garapenerako lankidetzaren arteko lotura garbia aipatu zuten lehenbiziko aldiz nazioarteko agiri batean. Hitzaurrearen 7. puntuan, adierazpena sinatzen duten herrialdeek honakoa ematen dute aditzera: «nazioarteko lankidetza behar-beharrezkoa da baliabideak eskuratzeko, eta, era horretan, garapen-bidean dauden herrialdeek arlo horretan duten betebeharra bete ahal izan dezaten» (Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Konferentzia, 1972). Ezinbestekoa da «nazioen arteko lankidetza zabal hori eratzea eta nazioarteko erakundeek neurriak hartzea guztion interesak babeste aldera», zeren «inguruneari lotuta dauden arazoak gero eta gehiago baitira» (7. puntua). Horrenbestez, adierazpenak oinarri hauek ezartzen ditu:

- Hegoko herrialdeetako garapenerako planetan ingurumena zaintzeko neurriak sartzea (12. oinarria).
- Ikerketa eta garapen zientifikoa bultzatzea, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan, nazioan bertan edo nazioartean dauden ingurumeneko arazoei dagokienez (20. oinarria).
- Lankidetzan aritzeko espiritua izanik, ingurumena babesteko eta hobetzeko nazioarteko gaiez arduratzea (24. oinarria).

Hala, bada, lehenbiziko hurbilpen hori izan zen, baina, hala ere, 1992. urtean Rio de Janeiron Lurraren Gailurra egin zen arte, ez zen urrats gehiagorik egin oinarri horien ildotik sakontzeko. Gailur horrek ondo baino hobeto islatzen du, ordurako, 1987. urteko Bruntdland-en txostenean (CMMAD, 1988) azaldu zen *garapen iraunkor* kontzeptua guztiz hedatuta eta jendarteratuta zegoela mundu osoan, eta ezinbestekoa zela «Mundua gogoan, jardun tokian-tokian» goiburua betetzea. *Ingurumen eta Garapenari buruzko Rio de Janeiroko Deklarazioak* —gero, 2002ko Johannesburgo Deklarazioak berrindartuko duenak— helburu hauek ditu, besteak beste: «mundu-mailako aliantza berri eta ekitatibo bat finkatzea, estatuen, gizarteetako funtsezko sektoreen eta pertsonen artean, lankidetzako maila berriak sortuz» (CNUMAD, 1992a); hori, adibidez, Countdown 2010 bezalako sareetan gauzatzen da.[13] Bestalde, Stockholm-en bezalaxe, berriz azpimarratzen du ezinbestekoa dela Iparretik Hegoaldera teknologiak eskualdatzea, eta herrialde guztiek baterako erantzukizuna hartu behar dutela beren gain. Besteak beste, deklarazioaren oinarri hauek aipatuko ditugu:

- Ingurumena zaintzea garapen-prozesuaren barruan, ingurumenaren zaintza ezin izango baita prozesu osotik bereizi (4. oinarria).
- Estatuak lankidetzan aritzea, mundu osoarekin elkartasun-espiritua izanda, Lur ekosistema zaintzeko eta babesteko, eta haren osasuna eta osotasuna suspertzeko (7. oinarria).
- Laguntza ematea hondamendi naturalak edo larrialdiko beste egoera batzuk direla-eta kalteak hartzen dituzten estatuei, betiere, kalte horiek ingurumenean eragina badute (18. oinarria).
- Bakea, garapena eta ingurumenaren babesa elkarren mendekoak direla eta bereiztezinak direla adieraztea (25. oinarria).

Horrez gain, zor ekologikoaren kontzeptu batzuei jarraiki, Rio de Janeiroko Deklarazioak jasotzen duenez, garatutako herrialdeek argi onartzen dute erantzukizuna dutela «garapen iraunkorra nazioarte osoan bilatzeko, mundu osoko gizarteek ingurumenean egiten duten presioa, eta eskura dituzten teknologiak eta finantza-baliabideak aintzat hartuta» (CNUMAD, 1992a).

Alabaina, Deklarazio horretatik harantz joz, Rio de Janeiroko Gailurrak bere oinarri orokorrak zehaztu nahi ditu nazioarteko akordioak eginez, eta akordio horiek «guztion interesak babestu behar dituzte, eta mundu osoko garapeneko eta ingurumeneko sistemaren osotasuna zaindu behar dute». Ingurumenari buruzko gainerako akordio aldeaniztasunekin bat eginez (ikusi 7. koadroa), Rio de Janeiron egindako hiru hitzarmen hauek egituratzen dute Nazio Batuek gizarte- eta ingurumen-arloko mundu-mailako garapen orekatua lortzeko hartu duen joera hori: *Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa* (CMNUCC; Nazio Batuak, 1992), *Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena* (CNUDB; CNUMAD, 1992b) eta *Basamortutzeko Prozesuari aurre egiteko Nazio Batuen Konbentzioa* (CNULD; Nazio Batuak, 1994).[14] Hitzarmen horien hitzaurrean, argi onartzen da ingurumenarloan dauden erronkei nazioarte-mailako erantzuna eman behar zaiela, eta nazioarteko lankidetzak ahalik eta eraginkorrena eta zabalena izan behar duela, eta ahalik eta erarik onenean koordinatu behar dela, hala estatuen eta gobernuen arteko erakundeen lankidetza, nola gobernuz kanpoko eremuan dagoen lankidetza. Bestalde, CMNUCC konbentzioan aditzera ematen denez, herrialde guztiek esku hartu behar dute «*batera dituzten baina desberdinak diren erantzukizunen*, dituzten gaitasunen eta beren gizarte- eta ekonomia-arloko baldintzen arabera» (Nazio Batuak, 1992). Hortaz, horrek esan nahi du Iparreko herrialdeek erantzukizun gehiago hartu behar dutela Hegoko herrialdeek baino. Era berean, hiru hitzarmenek nabarmentzen dutenez, nazioarteko lankidetza —hala zientifikoa nola teknikoa— ezinbestekoa da,

## 7. koadroa *Ingurumenari buruzko akordio aldeaniztun nagusiak*

Gaur egun, ingurumenari buruzko 250 akordio aldeaniztun baino gehiago daude indarrean, eta, horien artean, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Hezeguneei buruzko Hitzarmena (1971), Ramsar hirian sinatutakoa (Iran): nazioko ekintzarako eta nazioarteko lankidetzarako esparrua finkatzen du, hezeguneen eta gune horien baliabideen zaintza eta zentzuzko erabilera lortzeko.
- Arriskuan dauden fauna eta basa-landaretzako espezieen nazioarteko salmentaren kontrolerako Konbentzioa (CITES, 1975): konbentzio honek behar bezala zaintzen du basa-landareen eta animalien espeziekin egiten den nazioarteko merkataritza, inola ere arriskua izan ez dadin espezie horiek bizirik aurrera atera daitezen.
- Montrealeko Protokoloa (1987): honi jarraiki, atmosferan dauden zenbait gasen ekoizpena murriztu nahi da, uste baita ozono-geruza mehetzeko dagoen arrazoi nagusietako bat gas horiexek direla.
- Basileako Hitzarmena (1989): hainbat arau finkatzen ditu nazioartean mugaz gaindiko mugimenduak kontrolatzeko eta gizakiaren osasunerako eta ingurumenerako arriskutsuak diren hondakinak ezabatzeko.
- Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa (1992), 1992. urteko maiatzaren 9an New York-en sinatua.
- Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, Nazio Batuek Ingurumenari eta Garapenari buruz 1992. urteko ekainean Rio de Janeiron (Brasil) egin zuten gailurrean sinatua.
- Nazio Batuen Konbentzioa, lehorte larriak jota dauden edo basamortu bihurtzen ari diren herrialdeetan (bereziki Afrikan) basamortutzeko prozesuari aurre egiteko dena, Parisen sinatua (1994).
- Kiotoko Protokoloa (1997): 1997. urteko abenduaren 11n onetsi zen, baina ez zen indarrean sartu harik eta 2005eko otsailaren 16ra arte, orduantxe sinatu baitzuen Errusiak; horrenbestez, berotegi-efektuko gasen isurien %55 sorrarazten duten 55 naziok berretsi zuten protokoloa. Estatu Batuek ez dute oraindik ere sinatu, eta, bera, da, izan ere, planeta osoan berotegi-efektuko gas gehien isurtzen duen herrialdea.
- Kutsatzaile Organiko Iraunkorrei buruzko Stockholm-eko Hitzarmena (2001): gizakiaren osasuna eta ingurumena zaindu nahi ditu, ekosistemetan denbora luzez irauten duten produktu kimikoetatik babestuz.
- Rotterdameko Hitzarmena (2004): onarpen-prozedura bat da, eta nazioarteko merkataritzan salerosten diren produktu kimiko arriskutsu eta pestizida jakin batzuk ezarri aurretik onetsi behar da.
- Bioteknologiaren Segurtasunari buruzko Protokoloa (2003): laguntza eman nahi du eraldatutako organismo bizidunak segurtasunez eskualdatzeko, manipulatzeko eta erabiltzeko.

Iturria Geuk egina.

eta, horretarako, garapen-proiektuak egin behar dira, ikerketa zientifikoa bultzatu behar da, finantza-baliabideak banatu behar dira, nazioko instituzioak sendotu behar dira, eta adituen trukea indartu behar da (CNUDB hitzarmenaren 18. artikulua edo CNULD hitzarmenaren 12. artikulua).

Bestalde, hiru hitzarmen horiek agerian uzten dutenez, klima-aldaketari, basamortutzeko prozesuari eta biodibertsitatearen galerari aurka egingo badiegu, nahitaezkoa da instituzioak eta herritarrak hezteko, prestatzeko, bereganatzeko eta sentsibilizatzeko diren eta parte-hartzea bultzatzen duten programak sustatzea, prestatzea eta ezartzea (CMNUCC hitzarmenaren 4.1.i eta 6.ii artikuluak; CNUDB hitzarmenaren 13. artikulua; CNULD hitzarmenaren 19. artikulua). Artikulu horiek azpimarratzen dutenez, funtsezkoa da hezteko eta sentsibilizatzeko lanak egitea garapen bidean dauden herrialdeetan, baina, horrez gain, ez da bazterrean utzi behar Iparrean ingurumenari buruz eta krisialdi ekologikoak mundu osoan izango dituen ondorioei buruz sentsibilizatzeko egin den lan garrantzitsua. Ikusten dugunez, nazioarteko lankidetza ardatz nagusia da, bere alde guztietan, eta era *horizontalean* (hau da, nazioarteko lankidetzako edozein politikatan edo proiektutan) edo *sektorialean* (alegia, akordioak betetzeko zuzenean bideratzen diren lankidetzako proiektuetan eta inbertsioetan) barneratzen da, hitzarmen horiek beteko direla bermatze aldera. Azkenik, hiru hitzarmenek begien bistan jartzen dutenez, alde biko lankidetzan edo lankidetza aldeaniztun eta deszentralizatuan,[15] gobernuz kanpoko era askotako aktoreek parte hartu behar dute, eta horien artean tokiko agintariek eta gobernuz kanpoko erakundeek zeregin nagusia betetzen dute (ikusi, esate baterako, CMNUCC hitzarmenaren 7.1 artikulua eta Kiotoko Protokoloaren 13.i artikulua).

2000ko irailean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak *Milurtekoko Adierazpena* onetsi zuen, eta adierazpen hori une gogoangarria izan zen muturreko txirotasunari aurka egiteko borrokaren eta borondatearen arloan. Adierazpen horri jarraiki, natura babestea «oinarrizko balioetako bat da [...] XXI. mendeko nazioarteko harremanetan»; izan ere, «era horretan baizik ezin izango dugu naturak eskaintzen dizkigun aberastasun ikaragarriak gure ondorengoentzat zaindu eta haiei eskualdatu» (2000: 2). «Guztiona den ingurunearen babesa» izena duen IV. idatzatian bereziki nabarmentzen denez, «ezinbestez bultzatu behar dira garapen iraunkorraren oinarriak, 21 Programan adierazita, eta Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian adostuta daudenak», bai eta Rio de Janeiroko Gailurrean adostutako beste hitzarmen batzuk ere (ibidem: 6). Ekimen horretatik, Milurtekoko Garapenerako zortzi helburu atera dira; helburu horiek beteko dituztela hitz emateko sinatu duten herrialdeek mundu mailako itun berri bat bete behar dute muturreko pobrezia-mailak gutxitzeko, eta xede horren epe gakoa (sinbolikoa?) 2015. urtea da.

Milurtekoko Garapen Helburuen artean dagoen 7. xedeak ingurune naturala hartzen du ardatz gisa, eta «ingurumenaren iraunkortasuna bermatu» nahi du, hiru helburu hauek betez:

- Garapen iraunkorraren oinarri nagusiak nazioko programetan eta politiketan sartu nahi ditu, ingurumeneko baliabideen galera gutxitze aldera (A xedea).
- 2010. urterako era nabarmenean gutxitu nahi da dibertsitate biologikoaren galera (B xedea).
- Erdira gutxitu nahi da edateko urik eskuragarri ez duten pertsonen kopurua (C xedea).
- Hirietako periferietan bizi diren biztanleen bizitza era nabarmenean hobetu nahi da 2020. urterako (D xedea).

Izenburuak ingurumenari lotuta dagoen ikuspegia ematen du aditzera gehienbat, baina, hala ere, nabaria da iraunkortasunean gizakiari eta gizarteari lotuta dauden alderdiak ere azpimarratzen dituela (7C eta 7D xedeak). Bestalde, Nazio Batuetako Garapen Programak 2003. urteko Giza Garapenari buruzko Txostenean azaltzen duen gisa, 7. xedeak funtsezko garrantzia du gainerako zazpi xedeak lortu ahal izateko (2003: 125). Adibidez, txiroen elikagaien segurtasuna, sarritan, ekosistemetako ondasunen eta zerbitzuen mende dago (1. xedea); normalean, emakumeak eta neskak arduratzen dira ura eta erregaia biltzeko lana egiteaz, eta, baliabide horiek eskuratzeko bidea murriztuta badago, emakume eta neska horiek askoz ere aukera eta

denbora gutxiago izango dute prestakuntza- eta alfabetatze-arlorako eta ondasunak sortzeko jardueretarako (3. xedea); garapen bidean dauden herrialdeetan dauden gaixotasunen %20 inguru ingurumeneko arriskuen ondorio izan daiteke (6. xedea). Bestalde, 7. xedeari jarraiki, «ingurumeneko arazo horiek eta beste batzuk gainditu ahal izateko, ezinbestekoa izango da txiroen egoera askoz arreta gehiagoz aztertzea», eta, era horretan, «aurrekaririk ez duen mundu mailako lankidetza-maila finkatu beharko da». Horrenbestez, argi dago munduan dauden ingurumen-arloko arazo asko (klima-aldaketa, espezien dibertsitatearen galera, munduko arrantza-erreserbak agortzea) bakarrik konpondu ahal izango direla herrialde aberatsen eta txiroen arteko elkarketak eginez, eta, horretarako, 8. xedea indartu beharra dagoela (garapena bultzatuko duen mundu mailako elkarte bat sustatzea) (ibidem: 135).

Nazioarteko esparru juridikoari egin diogun berrikuspena osatze aldera, lerro batzuk paratuko ditugu, herri indigenen eta ingurumenaren arteko loturaz nazioarteko legerian jasota dagoena azaltzeko (ikusi 8. koadroa).

## Europar Batasuneko ingurumen-arloko lankidetzaren argi-itzalak...

Europako Erkidegoa eratzeko Itunak XX. Tituluko 177. artikulutik 181. artikulura bitartean, garapenerako lankidetzaren esparruan Europan izango den politika dago ezarrita; politika hori erkidegoko kide diren estatuek duten politikaren osagarria izango da.[16] Hain zuzen, 177.3. artikuluari jarraiki, «Erkidegoak eta kide diren estatuek konpromisoak beteko dituzte eta aintzat hartuko dituzte Nazio Batuen eta kide diren nazioarteko beste erakunde batzuen esparruan adostuko diren helburuak» (Europar Batasuna, 2006: 126). Era horretan, Europar Batasunak bere egiten ditu ingurumenaren esparruan egindako nazioarteko hitzarmenak eta adierazpenak, bai eta horiei dagozkien era askotako konpromisoak eta lehentasunak ere. *Garapen iraunkorra lortzeko Europar Batasunaren Estrategiak*, esate baterako, honakoa proposatzen du: Europar Batasunak eta kide diren estatuek lankidetza eraginkorra izatea gainerako herrialdeekin eta nazioarteko instituzioekin, hala nola, Nazio Batuen Ingurumen Programarekin (Europako Erkidegoen Batzordea, 2001a: 10). Era berean, estrategia horrek azpimarratzen duenez, Rio de Janeiroko Gailurrean egindako hitzarmenek zeregin nagusia betetzen dute nazioarteko lankidetzan (Europako Batzordea, 2006). Era berean, araudi aldeko konpromiso hori ageri-agerian dago «*Garapenari buruzko Europako adostasunari*» *buruz [...] Kontseiluak, Europako Parlamentuak eta Batzordeak egindako [...] baterako adierazpenean*. Izan ere, adierazpen horri jarraiki, Europar Batasunak 2015. urterako du finkaturik Milurtekoko Garapenerako Helburuak lortzea, eta, hor, lehentasunezko xedea da munduan dagoen pobrezia murriztea garapen iraunkorraren esparruan. Europako instituzio horien helburua hauxe da: ingurumena herrialde txiroetako gobernuen lehentasunezko helburua izan dadin lortzea, eta, era berean, mundu osoan eta Hegoarekin lankidetzan aritzea, kontsumoko moldeak eta iraunkorrak ez diren ekoizteko moduak gutxitzeko:

> Laguntza emango diegu garapen bidean dauden herrialdeei ingurumenari buruzko akordio aldeaniztunak ezar ditzaten, eta ingurumenari lotuta dauden ekimenak sustatu ditzaten pobrezian dauden pertsonei onura egiteko.
> (Europako Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea, 2006)

Bestetik, *Garapen iraunkorra lortzeko Europar Batasunaren Estrategia* berrikustean ere proposamena egin da garapen iraunkorraren arazoa barne hartzeko «Europar Batasuneko kanpoko politika guztietan [...], eta, horretarako, besteak beste, garapenerako alde biko lankidetzako eta lankidetza aldeaniztuneko helburu bilakatzea» (Europar Batasuneko Kontseilua, 2006: 21). Zeharkakotasun hori areago indartu da Europar Batasunaren Ingurumen-arloko Seigarren Ekintza Programaren bidez. Programa horren izena «Ingurumena 2010: etorkizuna gure eskuetan dago» da, Parlamentuak eta Kontseiluak onetsi dute, eta, Europar Batasunaren ingurumen-arloko kanpoko politikari buruzko atalean aditzera ematen duenez, bere ardatza da ingurumeneko kezka eta helburu guztiak Europar Batasuneko kanpoko harremanetako alderdi guztietan barneratzea. Bestetik, programa horrek bereziki nabarmentzen du nazioarteko hitzarmenak ezarri behar direla, batez ere klima, biodibertsitate, produktu kimiko eta basamortutzeko prozesuari buruzko hitzarmenak (Europako Erkidegoen Batzordea, 2001b).

Europako Batzordeak estrategia bat prestatu zuen klima-aldaketaren aurrean dauden erronkak garapenerako lankidetzaren esparruan txertatzeko, eta, horretarako, honako hauek hartu zituen oinarritzat: Europar Batasunaren garapeneko politika, Milurtekoko Garapenerako Helburuak, 2002. urtean Johannesburgon izan zen Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Gailurraren emaitzak, Aldaketa-klimatikoari buruzko Konbentzioa eta Kiotoko Protokoloa. Modu generikoagoan, garrantzizkoa da nabarmentzea ingurumenerako gaikako programa eta baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra (gai energetikoak barne hartuta) nazioarteko lankidetzaren esparruan gauzatzeko, guztira, 804 milioi eurokoa dela 2007-2010 denboraldian (EuropeAid).[17]

Plan eta estrategia garrantzitsuak daude erkidegoko politikak «koherenteak izan daitezen munduko garapen iraunkorrarekin eta nazioarteko konpromisoekin» (Europar Batasuneko Kontseilua, 2006: 20), baina, hala ere, zalantzan dugu Europar Batasunak nazioarteko lankidetzaren arloan finkatu dituen helburuak eta Batasunak berak merkataritza-arloan duen estrategia bat etorriko diren. Alberdi Bidagurenek (2006) honela azaltzen du zalantza hori:

> Nazioarteko arau ekonomikoak eta merkataritzakoak bazter uzten dituen gaur egungo sistema asimetrikoari eutsi nahi dion baterako merkataritzako politika kontraesanean dago guztiz Milurtekoko Garapenerako Helburuen bidez garapen bidean dauden herrialdeetan txirotasuna leundu nahi duten lankidetzako politikarekin.

### 8. koadroa *Herri indigenak eta ingurumena*

Herri indigenek dituzten baliabide naturalak eta ondare kulturalak oso garrantzitsuak izaten dira gizateria osoarentzat. Hala ere, herri horiek dira, izan ere, mundu osoan giza garapenaren indizerik txarrenak dituztenak. Nazio Batuetako Herri Indigenen Bulego Iraunkorrak egindako lana oinarritzat hartuta, Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena prestatu zen 2007. urtean. Adierazpen horrek ondokoa nabarmentzen du, ingurumenari eta nazioarteko lankidetzari dagokienez:

> **26. artikulua** [...] Herri indigenek eskubidea dute beren lurrak, lurraldeak eta baliabideak edukitzeko, erabiltzeko, garatzeko eta kontrolatzeko, bai tradiziozko jabetzaren bidez jaso dituztenak, bai hartzeko edo erabiltzeko tradiziozko beste modu baten bidez jaso dituztenak, bai eta beste era batez eskuratu dituztenak ere. [...]
> **29. artikulua.** Herri indigenek eskubidea dute ingurumena eta beren lurren, lurraldeen eta baliabideen ekoizpen-gaitasuna zaintzeko eta babesteko. [...]
> **39. artikulua.** Herri indigenek eskubidea dute estatuek finantza-laguntza eta laguntza teknikoa eman diezazkieten, nazioarteko lankidetzaren bidez, Adierazpen honetan adierazitako eskubideen onura jaso ahal izateko.

Iturria: Geuk egina, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren datuetan oinarrituta (2007).

## ... Espainian...

Espainian, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Legeak arautzen du nazioarteko lankidetzak (LCID, 1998). Lehenbiziko artikuluan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Legeak argi uzten du Espainiako lankidetzak «behar bezala bultzatuko dituela iraunkortasuna eta ingurumenaren birsorkuntza aintzat hartzen duten [...] garapen-prozesuak». «Hazkunde ekonomiko iraunkorreko» ereduaren alde egiten jarraitzen du (2.d artikulua), baina finkatzen duen helburua hauxe da: «gizakiaren, gizartearen eta ekonomiaren garapen iraunkorra lortzea, hartara, pobrezia mundutik desagerrarazten laguntzeko» (3 artikulua). Zehazki, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Legeak lehentasunekotzat jotzen du «ingurumenaren kalitatea babestea eta hobetzea, zentzuzko zaintza lortzea, eta biodibertsitatearen erabilera berriztagarria eta iraunkorra izatea» (7.e artikulua). Era berean, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Legeak hauxe adierazten du: «[Estatu espainiarrak] errespetua erakutsi beharko die nazioarteko erakundeen altzoan hartu diren konpromisoei».

Bestetik, *Espainiako Lankidetzaren 2005-2008 Plan Zuzentzaileak* —laugarren kapituluan ingurumen-arloko iraunkortasuna hobetzeko gaitasunak handitzeko prozesuak aztertzen dituenak—[18] hauxe ematen du aditzera: «Espainiako lankidetzak onartzen du natura-baliabideek Milurtekoko Garapenerako Helburuak lortzeko prozesuan betetzen duten zeregina funtsezkoa dela» (Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa, 2005: 31); eta, horren ondoren, hauxe gaineratzen du: «Espainiako lankidetza zuzenduta egongo da txiroen artean eragin gehien duten arazoei aurre egiteko, hori beharbeharrezko baita txirotasuna modu iraunkorrean gutxitzeko» (ibidem: 58).

Bestalde, nabarmendu behar da onuragarria dela Espainiako lankidetzak dokumentu oso bat jaso duela ingurumenari osorik zuzenduta, dagokion lan-esparruan: *Espainiako lankidetzako estrategia ingurumen-arloan*. Esparru-agiri horretan, zehatz azaltzen dira nazioarteko konpromiso horiek, eta «guztion ondare unibertsala» direla adierazten da; eta, bestalde, ingurumenari buruz hartu diren akordio aldeaniztun nagusiak zerrendatzen dira (SECIPI, 2002: 32).

Hala *Ingurumenerako Espainiako Lankidetzarako Estrategiak* nola *Espainiako Lankidetzako Plan Zuzentzailek* dituen bi dimentsioetan hartzen dute ingurumena, hala dimentsio horizontalean nola sektorialean. Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarako Estatuko Idazkaritzak honela dio (SECIPI-k):

> Dimentsio horizontalaren arabera, ingurumena zaintzeko beharrizana aintzat hartu behar da Espainiako Lankidetzako sektore, programa eta proiektu guztietan. Dimentsio sektorialak, berriz, barne hartzen ditu garapenean ditugun bazkideek ingurumenean hobekuntzak egin ditzaten zaintzera eta hobekuntzak lortzera bereziki zuzenduta dauden esku-hartzeak. (Ibidem: 5)

Estrategia horizontalari begira, dituen bi alderdi agertzen zaizkigu: prebentziozkoa eta propositiboa da. Bestetik, garapenerako lankidetzak, prebentziozkoa denez, ez du inpaktu txarrik eragin behar ingurumenean; eta proiektuek barne hartu beharko lituzkete «neurri paraleloak, hartara, erkidego hartzaileek saihestezintzat jotzen dituzten inpaktu horiek era egokian eta behar den proportzioan ahultze eta konpentsatze aldera» (ibidem: 23). Beste alde batetik, propositiboa denez, sektoreko estrategiak batera biltzen, koordinatzen eta antolatzen ditu «argi eta garbi eta berariaz garapen iraunkorrari eta ingurumenari buruzko helburu nagusia duten proiektuak» (ibidem: 32). Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarako Estatuko Idazkaritzaren iritziz, erronka metodologiko bikoitza da:

- Behar diren neurriak finkatu behar dira proiektu bat Ingurumena Babesteko sektorean barneratu ahal izateko.
- Sektorearen barruan erabat eta modu organikoan onartu behar dira dauden beste bi lehentasun horizontalak: pobreziaren aurkako borroka, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena. (Ibidem: 32)

Egoera horretan, interes handikoak diren eskualdeko hainbat programa egin dira, hala nola, Azahar programa, Mediterraneoaren arroan, edo Araucaria programa, Latinoamerikan (ikusi 9. koadroa). Hala ere, Gonzalez eta beste egile batzuen ustez (2008), ingurumenaren ustezko horizontaltasuna paperean baizik ez da jaso, ez baita orain arte praktikan jarri; eta horrek nolabait argitzen du zer dela-eta politika eta programa sektorialen multzo osoak ez duen ingurumena barne hartzen. Horrez gain, ingurumen-arloko Espainiako Garapenerako Laguntza Ofiziala handitu da, erakunde aldeaniztunen bitartez, baina, hala ere, iraunkortasunean egiten den inbertsioak behera egin du Espainiako alde biko Garapenerako Laguntza Ofizialaren ehunekoan.

Azkenean, kezkatzeko modukoa da Kongresuan dauden indar politiko guztiek 2007. urtearen bukaeran sinatu zuten *Pobreziaren aurkako Estatuko Itunak* berez ez diola ia aipamenik egiten iraunkortasunari, eta, era berean, ez duela inolako

### 9. koadroa *Araucaria eta Azahar eskualdeko programak*

Espainiako ingurumen-arloko lankidetzaren estrategia sektorialaren esparruan, bi programa daude abian, eta «historian barrena baztertuta egon diren tokiko biztanleen garapen iraunkorra lortzeko tresnak» dira (SECIPI, 2002: 33): Araucaria eta Azahar.

Araucaria programa 1997. urtean jarri zuten abian, eta haren ardatza da batera uztartzea biodibertsitatearen zaintza eta bestelako ekintzak, hain zuzen, tokiko biztanleen garapena lortu, eta instituzioen eta antolakuntza indartu nahi duten ekintzak. Programa gauzatzeko, lau ministerio —Kanpo Arazoetarako Ministerioa, eta Ingurumen, Ekonomia eta Zientzia eta Teknologia ministerioak— eta bost autonomia-erkidego aritzen dira lanean koordinatuta. Latinoamerikan, proiektu pilotu integraletan lan egiten da, ingurumen aldetik balio handia duten alderdietan, horietan nekazaritzako mugak bat egiten baitu babestutako gune naturalekin. Honako hauek dira haren bost ildoak: biodibertsitatea eta herri indigenak, ekoturismoa, ekoizpen iraunkorra, energia berriztagarriak, eta ingurumenaren kudeaketa eta plangintza.

Azahar programa 2001. urtean jarri zen abian; bertan Ingurumen, Ekonomia, Zientzia eta Berrikuntza, eta Industria eta Kanpo Arazoetarako ministerioek hartzen dute parte, bai eta hamar autonomia-erkidegok eta Fundación Biodiversidad fundazioak ere. Proiektuak honako gai hauek garatu nahi ditu: ingurumenaren babesa, baliabide naturalen zaintza, eta garapen iraunkorra Mediterraneoaren arroan (Europako hego-ekialdean, Ekialde Ertainean eta Magreben). Eragile publiko eta pribatu guztiak bateratu nahi ditu, garapen iraunkorraren esparruan egiten diren ekintzak natura-, landa- edo hiri-gune jakin batzuetan biltze aldera. Zazpi arlotan jarduten du, eta hauek dira arloak: lurren zaintza, uraren kudeaketa iraunkorra, energia berriztagarriak, turismo iraunkorra, ekoizpen iraunkorra, ingurumenaren saneamendua eta ingurumenaren plangintza eta kudeaketa.

**Iturria** Geuk egina honako datuak hartuta: SECIPI (2002), <http://www.aecid.es/web/es/cooperacion/prog_cooperacion/Araucaria/> eta <http://www.aecid.es/web/es/cooperacion/prog_cooperacion/Azahar/>.

harreman argirik ez zuzenik ezartzen pobreziaren aurkako borrokaren eta ingurumenaren babesaren artean.

Espainiako ingurumen-arloko legeriari dagokionez, beste herrialde batzuetan, hala nola Suitzan, gai horiek guztiak barne hartzen dira (ikusi 10. koadroa), baina, hala ere, Espainian ez da inolako aipamenik egiten nazioarteko lankidetzari, ez Hegoko herrialdeei. Ingurumeneko Erantzukizunari buruzko Legean (26/2007, urriaren 23koa) aipatzen denari jarraiki, *lankidetza* hitza hauxe baizik ez da: estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean dagoen lankidetza, edota estatuaren eta Europar Batasuneko kide den beste estatu baten arteko lankidetza, betiere, ingurumen-arloko kalte batek edo berehalako beste arrisku batek kalteak eragin ahal baditu (8. artikulua). Era berean, 2008ko proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bateginari jarraiki, «mugaz gaindiko eraginak» dira proiektu batek Europar Batasuneko kide den beste estatu batean izan ditzaten ingurumen-arloko ondorioak, baina ez dira inola ere proiektu batek mugan dauden beste herrialde batzuetan edo Espainiatik urrutiratuago dauden herrialdeetan izan ditzakeen ondorioak.

Azkenik, merkataritza-arloan, Espainiako enpresa transnazionalei laguntza emateko egiten diren inbertsio eta ekimen diplomatikoak, sarritan, kontraesanean daude transnazional horiek egiten duten jarduerarekin, esate baterako Kolonbian Unión Fenosa edo Repsol enpresa transnazionalek egiten duten jarduerarekin (Ramiro, González eta Pulido, 2007). Ingurumenaren arloan, erantzukizun handia dute energia-arloko enpresa transnazionalek, haien inbertsioek ekonomian, gizartean eta ingurumenean duten eragina garapenerako lankidetzak finkatzen dituen helburuen aurka baitoaz erabat. Miatzeko, ustiatzeko, erauzteko, biltegiratzeko, garraiatzeko eta banatzeko egiten dituzten jarduerek, tokiko eta eskualdeko ekosistemak kaltetzeaz gain, eragin txarra izaten dute biztanleen osasunean (bereziki emakumeengan, 3. koadroan ikusi dugunez) eta haien bizitzaren kalitatean; horrez gain, jarduera horien ondorioz, petrolio-alderdiak militarrez beterik egoten dira (González, Sáez eta Lago, 2008: 32-33). Bestalde, Hegoaldean egiten diren jarduera horiek kontraesanean daude guztiz enpresa horiexek Iparrean bidaltzen duten mezuarekin; izan ere, *marketin* kanpainei esker, eta joera berdea nabarmenaraziz, beren jarduerak iraunkorrak direla adierazten dute eta gizarte aldeko konpromiso sendoa dutela esaten dute.[19]

## ... eta Euskal Herrian

Euskal Autonomia Erkidegoaren Garapenerako Lankidetzako 2007ko otsaileko Legeak hitzaurrean ezartzen duenez, «ingurumena arian-arian hondatzen ari dela eta biodibertsitatea behin betiko suntsitzen ari dela» ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoak ezinbestez prestatu behar ditu nazioarteko lankidetzaren arloko «politika eraginkorrak», «gizakiaren garapen iraunkorra» oinarritzat hartuta (izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzari buruzko agirien multzoak kontzeptu hori erabiltzen du eta alde batera uzten ditu hazkundeari lotutako hitzak). Europako eta Espainiako legeekin gertatu bezala, euskal legeak ere hitz ematen du ingurumena babesteko dauden nazioarteko akordioak betetzeko. Hala eta guztiz ere, «Garapenerako lankidetzako politikako oinarri orientatzaileei» buruzkoa den 3. artikuluan, 2. puntuan baizik ez dago jasota ingurumena; eta, hor, gogora ekartzen da garapenerako lankidetzako jarduerak egin behar direla, betiere, «jarduera horiek giza eskubideen, ingurumenaren eta nazioarteko hitzarmenen bidez onartu diren konpromisoen aurkakoak ez badira». Hala, bada, giza eskubideak edota genero-arloko berdintasuna lege horren puntu jakin batzuetan balio onuragarri gisa agertzen dira («konpromisoa», «lorpena», «igoera», «sustapena», eta abar), baina, aitzitik, ingurumenaren babesa artikulu horretan baizik ez da agertzen, eta balio kaltegarri modura azaltzen da, lankidetzako ekintzak garatzeko muga balitz bezala. Hala ere, aditzera eman behar da lege horrek 4. artikuluan finkatzen duenari jarraiki, euskal lankidetzaren xedea hauxe dela: «garapenerako ekintzak iraunkortasunari lotuta egongo direla bermatzea, eta, ildo horretan ingurune naturalaren eta ingurumenaren zaintza bultzatzeaz gain, etorkizuneko belaunaldiek beren betebeharrak asetzeko gaitasuna izango dutela ziurtatzea» (4.1.b); bestalde, honako hau da lehentasun sektoriala: «ingurumena babestea, zaintzea eta haren kalitatea hobetzea, eta, era berean, biodibertsitatea zentzuzko eran, eta modu berriztagarrian eta iraunkorrean baliatzea» (5.d).

### 10. koadroa *Europako politika publikoen zeharkakotasunaren bi adibide*

**Suitza**
Ingurumenaren babesari buruzko lege federalak «Nazioarteko lankidetza ingurumenaren babesaren alde» izeneko 531. artikuluan ezarri duenez, Suitzak urte askotako kredituak eman ditzake zenbait xede lortzeko:

- Ingurumena babesteko nazioarteko programei edo erakundeei diru-laguntza eman ahal die.
- Ingurumenaren aldeko nazioarteko konbentzioak abian jartzeko finantziazioa eman ahal du.
- «Garapen bidean eta trantsizioan dauden herrialdeei laguntza eman ahal die» ingurumenaren aldeko nazioarteko konbentzioak abian jar ditzaten.

Suitzako Kanpo Arazoetarako Sail Federaleko Nazioarteko Lankidetza eta Garapenerako Zuzendaritzaren ustez, ingurumenak lehentasun osoa du, eta, ildo horretan, proposamena egin du urtero bost milioi euro zuzentzeko ingurumeneko proiektuak egin daitezen, hiru ildo estrategiko hauek aintzat hartuta: biodibertsitatea, basamortutzeko prozesua eta klima-aldaketa. Zuzendaritzaren iritziz, ura eskura izatea eta nekazaritza bereizita dauden gaiak dira, eta ezin dira ingurumenaren alde egiten diren ekintzen artean sartu.

**Alemania**
Alemaniako Errepublika Federalean zeharkako plan global bat dago, «2015. urterako ekintza-programa» izenekoa; plan horren bidez, Milurtekoko Helburuak, Monterreyko Adostasuna eta Johannesburgoko Deklarazioa bete nahi dira. Hamar gidalerro ditu, eta, horietako baten bitartez, «natura-baliabideak eskuratzeko modua bermatu eta ukitu gabeko ingurumena sustatu» nahi da, nazioarteko hitzarmenen esparruan. Bestalde, programa horren helburua «ingurumena babestea eta baliabideen zentzuzko erabilera egitea» da, eta, horretarako, funtsezkoak diren sei arlo ditu oinarritzat: lurzoruak zaintzea, basoak babestea, biodibertsitatea zaintzea, ur-baliabideak babestea, klima-aldaketaren auka borrokatzea eta gai kimiko seguruak baliatzea. Bestetik, Alemaniako nazioarteko lankidetza aztertzen ari da hiru arlo desberdinetan jardun behar dela iraunkortasuna lortzeko: nazioartean, Hegoko herrialdeetan, eta Alemanian, eta, bertan, oroz gain nabarmentzen dute ingurumenaren babesaren eta garapenaren arteko harremanari buruzko sentsibilizatzeko lanak gai nagusitzat hartu behar direla.

Iturria Geuk egina, aipatutako agiriak baliatuz.

*2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoak* Milurtekoko Garapenerako Helburuak hartzen ditu oinarri tzat (Eusko Jaurlaritza, 2008a: 7), eta areago zehazten du ingurumenarekin duen konpromisoa, bereziki nabarmentzen baitu «aukera egokia izan behar duela garapenerako agenda berria prestatzeko eta instituzionalizazio global eta demokratiko berria lantzeko» (ibidem: 15). Bestalde, Planak oinarritzat hartzen du txirotutako herrialdeen aldeko zor ekologikoaren kontzeptua (ibidem: 60). Hortaz, bada, eta a priori iraunkortasun gogorraren ikuspegitik hurbil dagoen esparru teoriko bati jarraiki, garapenerako lankidetza ekologian txertatzea proposatzen du:

> Iraunkortasun ekologikoa ez da azalduko garapenerako lankidetzako prozesuek ingurumenean izan dituzten ondorio txarrak konpentsatuko dituen politika «sendagarri» gisa; aitzitik, «prebentziozko» politika modura azalduko da, hartara, giza garapenaren eta ingurumenaren arteko harremana bateratu ahal izateko, proiektuak diseinatzerakoan. (Ibidem: 60)

Bestalde, planak onartzen duenez, zeharkako ikuspegiak normalean ez dira barne hartzen lankidetzako ekimenetan, edo, barneratzen baldin badira, ikuspegi tangentzial batetik barneratzen dira (ibidem: 21). Horrez gain, zehazten du iraunkortasun ekologikoa *zeharkako lerro* bat dela, eta garapenerako, ekintza humanitarioko eta garapenerako hezkuntzako proiektuetan sartu behar dela. Hala ere, gainerako zeharkako ildoak —giza eskubideak, genero-ikuspegia, tokiko gaikuntza— *arlo sektorialak* dira, baina iraunkortasun ekologikoak, berriz, ez du arlo sektorialaren mailaren onura eskuratzen. Era berean, plan estrategiko eta zuzentzaile horrek adierazle bakarra erakusten du ingurumenaren iraunkortasunari lotuta; eta genero-ikuspegian edo giza eskubideen arloan, berriz, hainbat adierazle agertzen dira. Horiek horrela, ez dugu zeharkako ildoei edo arlo sektorialei begira itundu den zereginaren kritika egin nahi (guztiz justifikatuta baitago zeregin hori izatea), baina azpimarratu nahi dugu —aurrekaririk ez duen krisialdi ekologikoari aurka egin nahi dion eta askoz ere asmo handiagoak dituen nazioarteko testuinguru juridikoaren testuinguruan— iraunkortasun ekologiko kontzeptua nolabait gutxietsita dagoela euskal lankidetzaren esparru teorikoan.

Nazioarteko lankidetza Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumeneko legerian era horizontalean barneratzeko prozesuaren azterketak zapore gazi-gozoa uzten digu. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko Lege Orokorrak ezarritakoari jarraiki, ezinbestekoa da naturako baliabideak babesteari buruzko erkidegoko zuzenbidea eta nazioarteko hitzarmenak islatzea, eta, besteak beste, Rio de Janeiroko Biodibertsitateari buruzko Hitzarmena eta Nazio Batuen Esparru Konbentzioa oinarritzat hartzea. Hala ere, lege horrek 23.i artikuluan baizik ez du aipatzen lankidetzako programetako parte-hartzea, eta, ematen duenez, gehienbat autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaz ari da, edota mugaz gaindikoa den edo Europar Batasunaren esparruan egiten den lankidetzaz.

Bestetik, *Euskal Autonomia Erkidegoko II. Ingurumen 2007-2010 Esparru Programak* iraunkortasunerantz aurrera egiteko jartzen dituen sei baldintzen artean —lehenengo 2002-2006 programak ez bezala—, honakoa jasotzen du: «ingurumeneko lankidetza sustatzea nazioarte osoan» (Eusko Jaurlaritza, 2007: 62) —baina ez du barne hartzen bere bost xedeen artean—. Testuinguru horretan, programak duen jarduteko ildo batek —gutxiago garatuta dauden herrialdeekin eta eskualdeekin lankidetzako eta elkartasuneko lokarriak indartzea— azalez eta bazter batean bada ere, aipatu egiten ditu garapenerako lankidetza eta Latinoamerikako gobernuekin lankidetzan aritzeko lehenbiziko ekimenak, xehetasun gehiagorik eman gabe. «Ingurumeneko aldagaia beste politika batzuetan barneratzeari» buruzko lehenbiziko baldintzari dagokionez, lau lehentasun hauek aipatzen dira: klima-aldaketa, biodibertsitatea, hiriguneak eta kontsumo/ekoizpen iraunkorrak. Ingurumeneko programaren ondoriozkoak diren plangintzako hiru esparruetatik,[20] *Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko Euskal Plana 2008-2012* (Eusko Jaurlaritza, 2008b) da horri buruz zerbait jasotzen duen bakarra, hain zuzen, 88. ekintzan jasotzen du (Eusko Jaurlaritzan neurri eredugarriak sartzeari buruzko atalean): Eusko Jaurlaritzak egindako isurketak Gerriko Berdearen Mugimenduaren bitartez konpentsatzea, eta, orobat, nazioarteko lankidetzako proiektuak egitea (klima-aldaketari lotutakoak), Garapenerako Lankidetza eta Laguntzako Eusko Jaurlaritzaren Funtsaren bitartez.

## Lege-esparruak izan ditzakeen gaitasunak eta mugak

Aurreko guztia ikusita, argi dago nazioartean, egin diren hitzarmen eta adierazpen askoren bidez, ingurumen-arloko erronka ugari jaso dutela, eta horrek aukera ematen digula lan eta jarduteko esparru zabala eta sendoa finkatzeko, garapenerako lankidetzaren eta ingurumenaren esparruan. Nazioarteko testu horiek argi eta anbiguotasunik gabe adierazten dute behar-beharrezkoa dela ingurumeneko gaiak lankidetzako politikan txertatzea, eta, era berean, oso garrantzitsua dela Iparreko herrialdeek konpromiso argia, erabakia eta iraunkorra izatea Hegoko herrialdeekin, era horretan, tokiko eta mundu osoko iraunkortasuna bermatze aldera.

Nazio Batzuen agenda oinarritzat hartuta, administrazio publikoek ibilbide-orri bat dute eskura, eta, horren bidez, ingurumen-arloan dauden gairik nabarmenenak sar ditzakete beren lankidetzako agendetan. Klima-aldaketa, biodibertsitatea, basoa soiltzea, basamortutzeko prozesua, eta beste arazo batzuk nazioarteko lege-esparruan oso argi zehaztuta dauden gaiak dira, eta orain kontinente, estatu eta toki guztietako legerietara aldatu behar dira. Atal honetan aztertu ditugun kasu guztietan, legeek berariaz aipatzen dituzte nazioarteko hitzarmenak: a priori idatzizko konpromiso bat dago horiek guztiak errespetatzeko eta ezartzeko. Alabaina, erreferentzia horietatik harantz joanez, garrantzizkoa da aipatutako hitzarmen horietatik agiri zehatzak lortzea, jarduteko esparrura egokitutako agiriak, nazioarteko esparrua ezartzeko prozesuaren plangintza egin ahal dutenak. Adibidez, Europan, estrategia xehatuak daude, hala ingurumenaren nola lankidetzaren arloan, eta horiek erabat bideratzen dituzte Europako politikek arlo horietan dituzten jarraibideak. Espainian —agiria praktikan ezarri gabe badago ere— *Espainiaren ingurumen-arloko lankidetzaren estrategia* (SECIPI, 2002) nabarmendu behar dugu, hor zehatz jasota baitago Estatu espainiarrak hartutako konpromisoa. Bestalde, azpimarratu behar da euskal lankidetzak ez duela tankera horretako estrategiarik; eta, egia esan, horrelako estrategia batek aukera emango luke ingurumena bere baitan barneratzeko.

Itxura denez, iraunkortasunak zeharkakotasunaren itxurapean agertzen da politika publikoetan, baina, hala ere, ikusten dugunez, *Espainiako ingurumeneko legerian garapenerako lankidetzako gaiak barneratu gabe daude.* Europar Batasunak edota beste herrialde batzuek lankidetzari lotutako gaiak sartzen dituzte ingurumen-arloko legerian, baina Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, ez da agertzen ikuspegi hori; horrek ondo ematen digu aditzera zein zatikatuta dauden estatuko eta autonomia-erkidegoetako politika publikoak. *Lankidetza ingurumeneko arauetan kontuan hartzen ez denez, horren ondorioz, sinergiak falta dira berez osagarriak izan beharko liratekeen politiken artean.* Era berean, gure iritziz, ingurumenaren auziaren horizontaltasuna areago garatu behar da lankidetzako politiketan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, alderdi hori era horizontalean txertatzeko borondatea dagoela ikusten da. Alabaina, ez zaio garrantzi berbera ematen ingurumenari eta horizontalak diren beste gai batzuei —hala nola, genero-ikuspegiari edota giza eskubideei—; eta, hortaz, nabaria da beharrezkoa dela, hala teorian nola praktikan, kontuan izatea ingurumeneko gaiak funtsezko aldagaiak direla —lankidetzako beste gai klasiko batzuekin parekatzeko modukoak baitira—, eta, orobat, kontuan izatea biosfera giza jatorriko kapitalen oinarria dela.

Bestalde, lehen nabarmendu dugunez, koherentzia eza dago Hegoan ingurumena hobetzeko lanei lotuta dauden lankidetzako politiken eta Europar Batasuneko nahiz Espainiako merkataritzako politiken artean. Normalean, Munduko Merkataritza Erakundearen merkataritzako arauak gailendu ohi dira Lanaren Nazioarteko Erakundeak ematen dituen gomendioen gainetik (ez baitago ingurumeneko munduko erakunderik ere); horiek horrela, itxura denez, *Iparreko herrialdeetako merkataritzako politikak, kasurik onenean, arrotzak eta beren lankidetzako politikekin koordinatu gabe daude, eta, kasurik txarrenean, elkarren aurkakoak dira helburu eta ondorio zehatzei begira.* Horrez gain, ezin dira inola ere erkatu, alde batetik, nazioarteko lankidetzako proiektuetan baliatu diren aurrekontuak eta egin diren ahaleginak, eta, beste aldetik, errentagarritasuna ia irizpide bakar gisa hartzen duten eta enpresa transnazionalen funtsezko zereginean oinarritzen diren ekonomia indartsuak garatzeko sartu dituzten funtsak eta egin dituzten ekimen diplomatikoak. Azken horiei dagokienez, nabarmendu beharra dago kontraesan handiak daudela haien diskurtsoaren eta haien jardueren artean; izan ere, diskurtsoari jarraiki, Iparrean gizarte- eta ingurumen-arloko erantzukizun gehiago hartzeko eskatzen da, baina, aitzitik, beren jarduerak guztiz kontrakoak dira, eta ez dituzte inola ere zaintzen eta betetzen Hegoan oinarrizkoak diren gizarte- eta ingurumen-arloko arauak. Ildo horretan, Latinoamerikan dauden Espainiako transnazionalen petrolio- eta gas-jardueren inpaktuak bereziki kezkagarriak dira, eta, neurri handi batean, kaltegarriak dira, ingurumen-arloko nazioarteko hitzarmenetan itunduta dauden gutxieneko edukiak betetzeari begira. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da neurri hauek hartzea:

- Multinazionalek zorrotz bete behar dituzte beren jatorriko herrialdean dauden nazioarteko eta tokiko ingurumen-arauak, eta, era berean, ezinbestez bete behar dute beren jokabide-kodea, eta dagokien gobernuek eskatu egin behar die gainera.
- Iraunkortasunaren eta lankidetzaren oinarriak zeharka ezarri behar dira gobernuen politika guztietan.
- Oinarri horiek ez dute gobernuen merkataritza-arloko politikaren menpe egon behar.

Petrolioaren sabaiari dagokionez, egia da zenbait agiritan aditzera ematen dela erregai fosilak agortzen ari direla, baina, hala ere, funtsezko gai hori ez da aztertu inongo hitzarmenetan edo programetan, horrelakoetan gehienbat aztertzen den gaia klima-aldaketa izaten baita. Mundu mailako berotzeko prozesuak Hegoko herrialdeetan izan ditzakeen ondorioei inolako garrantzirik kentzeko asmorik gabe, hala ere, aditzera eman behar dugu, Hubbert-en gailurraren urte gutxitara gaudela (dagoeneko horraino iritsi ez bagara), eta urre beltzaren guztiz mende dagoen ekonomia globalizatuan ezinbestekoa izango litzatekeela gai hori premiaz barne hartzea agenda politikan, oro har, eta nazioarteko lankidetzan, bereziki. Era berean, petrolioaren sabaia berariaz barne hartu behar da lankidetzako plan zuzentzaileetan, eta, gainera, dagokion garrantzia eman behar zaio, esate baterako, ildo estrategiko bata berari eskainiz.

Azkenik, arlo teorikoago batean, kritika egin nahi diogu Europar Batasunak eta Espainiak nazioarteko hitzarmenetan erabili duten *hazkunde iraunkor* hitzari, hitz hori ez baita batere kontzeptu egokia XXI. mendean ditugun erronka ideologikoei begira. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, giza garapen iraunkorrean oinarritutako terminologia erabili da, eta, ildo horretan bilakaera garrantzitsua ikusten dugu, nahiz eta oraindik hori aski ez izan. Dena dela, ildo horretan jarraituz gero, ingurumen- eta gizarte-arloko arazoei buruzko ikuspegi global eta orokor baterantz joko dugu. Azterlan honen lehenbiziko zatian jasotakoari jarraiki, garapenerako lankidetzak ondo bermatu beharko luke Lurraren muga biofisikoetara zedarrituta dagoen eta herrialde guztien asmoekin bateragarria den nazioarteko esparru bat. Horrek esan nahi du Iparrean uzkurtzeko edo nork bere buruari eusteko beharra dagoela (adibidez, sentsibilizatzeko, hezteko eta ikertzeko proiektuak eginez), eta, era berean, Hegotik bateratzeko joera bat iritsi behar dela, eta horrekin batera lankidetzako proiektuak garatu beharko liratekeela; proiektu horien legen helburua izango litzateke duintasun-maila bat lortzea, hazkunde materialarekin lotu gabe dagoen garapen-eredu baten bitartez. Ikuspegi horien oinarriari jarraiki, kapital naturalak edozein garapen-prozesuren euskarria izan beharko luke, eta ekosistemek duten karga-ahalmena errespetatu beharko litzateke; hori guztia aurrerapauso nabarmena izango litzateke nazioarteko lankidetzaren esparruan. Era berean, gure ustez, *garapenerako lankidetzako politikak zuzentzen dituzten era askotako agiriek arian-arian barne hartu beharko lituzkete ekonomia ekologikoko funtsezko oinarriak*, alde batetik, azaldutako definizioei eta helburuei begira, eta, bestetik, programetan, ildo estrategikoetan eta ekintzetan, betiere, ideia gako hau izanik: inbertsio egoki bat eta kapitalaren kudeaketa egoki bat lagungarria izango da giza kapitala eta ongizatea sortzeko. Gainera, uzkurtzeko eta nork bere burua mugatzeko kontzeptuek, norabide askotako lankidetzari lotuta, Hego-Iparraren arteko lankidetzari buruzko hausnarketa praktiko handiagoa egitera bultzatzen gaituzte, nazioarteko eta tokiko lege-esparru eta esparru juridikorik gabe.

# 4 XXI. mendeko ekologiako erronkei aurre egiteko lankidetza lortzeko lehenengo jarraibideak

Azterlan honetan argi erakutsi dugunez, iraunkortasunak lotura estu-estua du oraingo eta etorkizuneko gizakiaren ongizatearekin. Hargatik, gure iritziz, funtsezkoa da lankidetzako proiektuak finantzatzen dituzten erakunde publikoek eta pribatuek, eta, orobat, funtsak jasotzen dituzten erakundeek iraunkortasuna barne har dezaten beren planetan eta proiektuetan. Atal honetan, jarduteko ildo orokor batzuk paratuko ditugu, lagungarriak izango baitzaizkigu teoriatik praktikara igarotzeko: garapenerako laguntzaren lehentasunak eta zeharkakotasuna, iraunkortasuna barne hartzea proiektuen zikloan, eta lankidetzako ikuspegi berri gisa beste irizpide batzuk aintzat hartzea. Horrez gain, ingurumeneko aldagaia nazioarteko garapenerako lankidetzaren esparruan sartzeko orientabide gisa baliatze aldera, atal honek orain arte burutu diren esperientzia praktiko batzuk hartu ditu oinarritzat.

## Ingurumena babestea garapenerako laguntzaren zeharkako helburu estrategiko gisa

Ingurumen-inpaktu handiak sortu beharrean eta hala behar denean konpentsatzeko neurriak ezarri beharrean, garrantzitsuagoa da ekosistemen iraunkortasuna bermatzea —hau da, haien funtzioei, eta karga-ahalmena eta birsortzeko dituzten gaitasunei eustea—; hain zuzen, hori izango da lankidetzako tokiko, nazioko eta nazioarteko programen lehentasun nagusia. Ikuspegi integralaren eta zeharkakoaren bidez, iraunkortasuna Garapenerako Laguntza Ofizialeko jardueraren ildo estrategiko bat izango da.

**Ikuspegi integrala eta zeharkakoa.** Lankidetzako politiken ikuspegi osokoaren ardatza azterketa honen bigarren atalean finkatuta dagoen esparru teorikoa da. Horiek horrela, iraunkortasun gogorra da lortu nahi den helburua, eta biosfera —haren muga eta amaiera guztiekin— da oinarrizko euskarria gizakiaren edozein jarduera egiteko; hala, garrantzizkoa da esparru teorikoari dagokion ekiteko estrategia bat garapenera-

ko lankidetzaren esparrura eramatea. Ildo horretan oso interesgarria iruditzen zaigu González, Montes, Santos eta Monederok egin duten proposamena, eta, beraz, nahiko genuke nazioarteko lankidetzak esku hartzeko dituen arlo guztietara zabaldu. Proposamen horren oinarrian, Programa Araucaria XXI izenekoaren definizioko lanak daude; eta haren helburua, azken batean, hauxe da: «ingurumenaren iraunkortasuna ardatz gisa hartzen duten esku-hartze guztiei koherentzia eta osagarritasun gehiago ematea, eta, horretarako, egituratu gabe dauden jarduera sektorialen katalogoak saihestea» (2008: 10). Kapital ekonomikoa giza eta gizarte-kapitalaren azpieremu gisa hartuta eta, bestetik, kapital naturalaren azpieremu ikusita, egile horiek osoko ikuspegi bat aurkezten dute, eta, horren bidez, kapital naturalaren kudeaketa (babestutako arloen kudeaketa, zaintzeko sistemak, ur-zikloaren osoko kudeaketa, lurralde-antolamendua, eta abar) oinarritzat eta esku hartzeko esparrutzat hartzen dute, kudeaketa ekoefizientea (hondakin solidoen kudeaketa, klima-aldaketa, energia garbiak, eta abar), gizarte-kohesioa (sendotze instituzionala, parte-hartzea, ingurumeneko hezkuntza, eta abar) eta ingurumeneko ondasunen eta zerbitzuen erabilera barne hartuta. Ikuspegi osokoaren adibide gisa, Gerriko Berdearen Mugimendua dugu, nahiz eta berez ez izan lankidetzako proiektu bat. Hegoko herrialde batean egindako garapen-proiektu horrek izaera bateratzailea du eta nolabaiteko ospea du nazioartean.[21] Gerriko Berdearen Mugimenduak bereizgarri nabarmenak ditu, gaitasun handia baitu ingurumenaren babesa, generoa, giza eskubideak eta garapen ekoizkorra lotzeko (ikusi 11. koadroa).

Bestetik, ondo bermatu behar da natura zaintzea ardatz nagusi gisa jasota ez duten lankidetzako proiektuetan era integralean barne hartuko dela iraunkortasuna. Kontua da garrantzi berbera eman behar zaiela ingurumenari eta beste gai horizontal batzuei, hala nola, genero-ikuspegiari edota giza eskubideei; eta, orobat, aintzat hartu behar dela ingurumeneko gaiak funtsezko aldagai gisa, lankidetzaren arloan klasikoak diren beste gai batzuen pareko gisa, eta giza jatorriko gainerako kapitalen kudeaketaren euskarri modura. Iraunkortasunaren zeharkakotasuna lortzeko, nahitaez hartu behar dira aintzat plan, programa eta proiektu guztietan lehen definitu ditugun funtsezko kontzeptu eta oinarri batzuk (gizakiaren ongizatearen eta ekosistemen zerbitzuen arteko harremana, muga biofisikoekiko errespetua, sarrerako eta irteerako araua, aberastasuna eta egokitutako adierazleak, eta abar), eta atal honen gainerako pasarteetan, proiektuaren zikloak dituen aldiak aztertzean, zehaztuko ditugun beste kontzeptu batzuk ere bai.

**Ildo estrategikoa.** Helburu nagusi gisa krisialdi energetikoari, klima-aldaketari, basamortutzeko prozesuari eta, besteak beste, biodibertsitatearen galerari aurre egitea duten zenbait proiektu abian jartzea ardatz estrategikoa izango da nazioarteko lankidetzako politika guztietan, XXI. mendeko erronka ekologikoei behar bezala egokituta. Proiektu horiek dagokien garrantzia izan dezaten, *oso garrantzitsua da ekosistemak babestea, zaintzea eta hobetzea helburu gisa hartzea, berez, nazioarteko lankidetzan.* Hortaz, bada, nahitaezkoa da plan estrategikoan edo lankidetzako programak eta politikak gidatuko dituzten beste esparru-agiri batzuetan argi finkatzea zein diren ingurumenean esku hartzeko dauden arlo nagusiak, ingurumeneko akordio aldeaniztunak oinarritzat hartuta. Herrialde edo eskualde jakin batean ardaztuta dauden lankidetzako estrategiei dagokienez, ingurumenaren egoeraren azterketa orokorra eduki beharko dute, eta hor ondo jaso beharko dira bera garatzeko dauden ingurumeneko alderdirik garrantzitsuenak, eskualdeko ingurumen-arloko gaitasun instituzionalak, eta alde horretan konpondu behar diren arazo sozioekologiko nagusiak. Azterketa horiek abiaburutzat hartuta, azterlanak ondorioen eta gomendioen multzo bat eduki beharko du, eta horiek guztiak baliagarriak izango dira herrialde horietan iraunkortasuna ahalik eta modurik eraginkorrenean barneratzeko. Gainera, behar-beharrezkoa da Garapenerako Laguntza Ofizialaren aurrekontuko zenbateko garrantzitsu bat berariaz bideratzea «ingurumeneko lankidetza» deituko dugun arloan; eta, orobat, egiten diren lankidetzako proiektuen ehuneko zehatz bat (adibidez, guk proiektu guztien %20 proposatzen dugu) berariaz zuzenduta egotea ingurumen-arloko akordio aldeaniztunak betetzera. Adibidez, baso-soiltzeko prozesuaren aurkako hitzarmena erraz bete daiteke baso primarioa keta haien biodibertsitatea zainduz. Ikuspegi osoko batetik aztertuta, mota honetako proiektu bat, alde batetik, lagungarria izango da iraunkortasuna lortzeko, eta, bestetik, ona izango da tokiko biztanleen ongizatea hobetzeko. Izan ere, basoa zainduz gero, tokiko biztanleek lehen bezalaxe jarraitu ahal izango dute basoak eskaintzen dizkien zur-produktuekin eta zurezkoak ez diren produktuekin hornitzen. Gainera, ura ez da kutsatuko, eta baso-soiltzeko prozesuetan izaten diren beste arrisku edo arazo batzuk ere saihestuko dira (ikusi 12. koadroan basozainen familien esperientzia). Kontua da ingurumeneko eta gizarteko aldagaiak uztartzen dituzten zaintzako programak abian jartzea, hartara, bi dimentsio horiek elkarren aurka egon ez daitezen, eta, gainera, itunak eta sinergiak lor daitezen.

## Iraunkortasuna proiektuaren zikloan barneratzea

Ingurumenak duen garrantzia nahitaez barneratu behar da programa edo proiektu jakin bat gauzatzeko aldi guztietan, hasi proiektua edo programa identifikatzen den alditik eta erabat betearazten, haren jarraipena egiten eta azken ebaluazioa prestatzen den arte.

**Proiektua identifikatzea.** Lankidetzako eta ingurumeneko proiektuak identifikatzerakoan, oinarritzat hartu behar ditugu esku hartuko den inguruneak dituen gizarte-, ekonomia-, kultura- eta ingurumen-baldintzak. Era berean, erreferentzia gisa har daitezke finantziazioa jartzen duten erakundeak eta kon-

**11. koadroa** *Gerriko Berdearen Mugimendua: generoaren, naturaren eta bakearen arteko sinergia*

1977. urtean, Wangari Maathai-k Gerriko Berdearen Mugimendua (Green Belt Movement) sortu zuen Kenyan, beste emakume batzuekin batera. Mugimendu hori da, hain zuzen, generoaren eta natura-baliabideen kudeaketaren artean loturak eratzeko egin zen lehenbiziko ahaleginetako bat. Mugimendu honek iraunkortasunaren alderdi ugari lantzen ditu, tokian-tokian jarduten da, emakumeen eta tokiko biztanleriaren jabekuntza bultzatuz, autosufizientzia lortze aldera. Mugimenduaren oinarriak ingurumenarekiko errespetua, eta baliabide naturalen erabilera eta kudeaketa egokia bultzatzea dira.

Gerriko Berdearen Mugimenduaren proiektu guztien artean, «zuhaitzak landatzeko kanpaina» da zaharrena eta ezagunena. Orain arte, 30 milioi zuhaitz baino gehiago landatu dituzte, eta, horrenbestez, herrialdean zuhaitzek estaltzen duten azalerak gora egin du, lanpostu berriak eta sarrera-iturriak sortu dira emakume nekazarientzat eta tartean sartuta dauden beste pertsona batzuentzat, zuraren iturri iraunkorrak sortu dira erkidegoko kideentzat, oinarrizko jendearen jabekuntza lortu da, banakako eta taldeko jabekuntza bultzatuz, lurraren erosioa geldiarazi da, emakumeek garapen-arloan duten gaitasuna agerian jarri da, eta kontzientziazio gehiago piztu da ingurumena eta landareen eta laborantzen tokiko biodibertsitatea zaintzeak eta babesteak duen garrantziaz.

**Iturria** Geuk egina, Maathai erakundearen datuak oinarritzat hartuta (2008).

## 12. koadroa *Basozainen familientzako programa*

Basozainen familientzako programa Kolonbiako Gobernuak bultzatu duen hautabidezko garapeneko ekimen bat da, eta Amazoniako Biodibertsitatearen Zaintzarako Korporazioa (CODEBA) bezalako erakundeen babesa jaso du. Programa hau 2003. urtean sortu zen, eta haren xedea zen basoak zaintzea, laguntza eta bultzada ematea tokiko garapena sustatzeko, kokaina eta mitxoleten laborantzak borondatez arian-arian kentzen joan zitezen lortzea, eta, era berean, laborantza horien ordez, ekoizteko hautabide iraunkorrak sar eta landatzea, eta, azkenik, basoak zaintzeko lagungarriak izan zitezkeen ingurumeneko proiektuak abian jartzea. Programak barne hartzen ditu Kolonbiako ingurumeneko ekosistema estrategikoetan kokatuta dauden nekazarien eta indigenen erkidegoak.

Ingurumen-arloan, honako datu hauek nabarmendu behar ditugu: familia onuradunen %95ek ez du egiten basoa mozteko edo erretzeko inolako jarduerarik; %41ek uztondoak baliatzen ditu laborantzako jardueretan; %27k ongarri organikoak erabiltzen ditu bere laborantzetan; eta %19k, azkenik, laborantzen txandaketak egiten ditu.

Gizarte-esparruan, eta ekimenaren hasieran eztabaida ugari izan bazen, ere, programak ondo frogatu du, basoaren erabilera eta kudeaketa egokia eginez, familiek ziurtasun osoz lortu ahal dutela beren mantenua eta beren etorkizuna urratu ahal dutela. Gaur egun, Kolonbian, 53.000 familia eta 25 udalerri baino gehiago daude programari loturik. Familia horietatik, %32 laborantzekin zerikusia duten ekoizpen-produktuei lotuta daude, gehienbat, kafearen, kakaoaren, basoko produktuen, apikulturaren eta/edo kautxuaren ekoizpenari lotuta. Programa honek erraztu egin du lurraren jabetza lortzeko aukera, lurrak era masiboan erosiz. Guztira, 2004. eta 2007. urteen artean, basozainen 11.405 familiak lortu dute 43.378 hektarea lur eskuratzea eta, batez bestez, familia bakoitzak 3,8 hektarea lortu ditu.

Iturria Geuk egina, programa honetako web ofizialetik jasotako informazioa hartuta: <http://www.accionsocial.gov.co/>.

tuan hartuko den alderdiko tokiko politikek prestatutako esparru-agirietan jasota dauden ildo estrategikoak. Proiektuak identifikatzeko, honako orientazio hauek ezarri ahal izango ditugu (geuk eginda, EuropeAid erakundearen datuak abiaburutzat hartuta, 2007):

- Arazoak identifikatzean, oroz gain nabarmendu behar dira xede den biztanleriak nozitzen dituen ingurumeneko baldintza txarrak, horien ondorioz arriskuan egon baitaiteke etorkizuneko beharrizanak asebetetzeko duten gaitasuna (adibidez, basoa soiltzea, higadura), eta kanpokoak edo mundu-mailakoak diren arazoei egindako tokiko ekarpenak (esate baterako, biodibertsitatea galtzea, berotegi-efektuko gasen isurketa).
- Helburuen zuhaitzean, garapenerako helburu orokorrak lortzeko (zuzen edo zeharka) lagungarriak diren ingurumeneko helburuak jaso behar dira. Era berean, ondo hautatu behar da zein proiektuk betetzen dituzten iraunkortasuneko eta baliabideak edo kapital naturala zaintzeko berariazko helburuak.
- Pobreziaren eta ingurumenaren artean dauden harremanak aztertu behar dira, arazoen eta helburuen zuhaitzen kate logikoetan (ikusi 13. koadroa, bi dimentsioak barne hartzen dituen proiektuaren adibide gisa).
- Berrikusi eta kontuan izan behar dira esku hartzen den alderdian dauden instituzioek (tokikoek, naziokoek, eta eskualdekoek) eta finantza-erakundeak dituzten ingurumeneko politikak eta helburuak, ingurumen-arloko akordio aldeaniztun nagusiak barne hartuta.
- Ingurumeneko inpaktuak aztertu behar dira, gizonengan eta emakumeengan dauden ondorio desberdinak aintzat hartuta.
- Interesa duten aldeek dituzten ingurumeneko kezkak parte hartuz identifikatzeko, ezagutzeko eta erkatzeko prozesu osoan, arreta berezia egingo zaie emakumeek esparru horretan duten parte hartzeari.

Bestetik, horri lotuta dauden ingurumen-arloko arriskuen ebaluazio egokia egin beharra dago. Tamaina handikoak diren edo ekosistemetan inpaktu nabarmenak izan ditzaketen proiektuei dagokienez (esate baterako, hondakin toxikoen eta arriskutsuen tratamendua, osasun-, garraio- ur- edo energia-arloko azpiegiturak eraikitzea, baso-zatiak ebakitzea edota nekazaritzako lurrak birmoldatzea...), komenigarria da ingurumeneko inpaktuaren ebaluazioa egitea. Nolanahi ere, proiektu horietan jasota dauden ekintzek izan ditzaketen ingurumeneko inpaktu txarrak ahalik eta gehien murrizteko edo saihesteko modua aurkitu behar da, eta, horretarako, kasu bakoitzean egon daitezkeen hautabiderik onenak aztertu behar dira, eta komenigarritzat jotzen denean neurri zuzentzaileak ezarri behar dira. Era berean, tartean dagoen alderdiko ingurumen-baldintzak hobetzeko egon daitezkeen aukerak aztertu behar dira; eta horiek eskualdeko programa, plan eta proiektuetan sartzeko dagoen aukera ikertu behar da, hartara, eragin ona izan dezaten bertako biztanleriaren bizitza-kalitatean.

**Proiektua azaltzea.** Garapenerako laguntza eskatzeko inprimaki gehienek gabezia batzuk dituzte (ikusi 14. koadroa); izan

## 13. koadroa *Bolsa Amazonia proiektua, 18.000 nekazariri baino gehiagori lana ematen dien hautabide iraunkor bat*

Bolsa Amazonia proiektuak Amazonas ibai-arrotik etorritako hainbat produkturen merkataritza iraunkorra sustatzen du. Ekimen horri esker, produktu asko ekoizten eta merkaturatzen dira, hala nola, papera, eserleku organikoak edota zuku naturalak.

Proiektua 1991. urtean sortu zen Para-ko (Brasil) Unibertsitate Federaleko Ingurumen Sailean, POEMA programaren eskutik (Pobrezia eta Ingurumena Amazonian). Hasieran, proiektuak egiten zituen jarduera nagusiak ziren Amazoniako landa-erkidego txiroetara joatea, bertako biztanleen oinarrizko bizitza-baldintzak hobetzeko. Lehenengo proiektuen ardatza uraren saneamendua eta energia sortzea izan zen, eta, horretarako, hainbat sistema teknologiko eta ekologiko garatu zituzten. Gero, balio erantsia zuten zentroak sortzea pentsatu zuten, eta, ildo horretan, ikerketa-proiektu bat egin zuten. Era horretan, argi erakutsi zuten lehen erabiltzen ez ziren produktu batzuk eraldatu ahal zirela eta automoziorako piezak egiteko zuntz bihurtu.

Pixkanaka-pixkanaka, proiektua zabalduz joan zen, eta, hala, 2001. urtean goi-mailako teknologiako planta bat zabaldu zuten. Hor, 100 tona produktu baino gehiago ekoizten dute, eta produktu horiek bere indarrez dabilen produktuak eta horren eratorriak dira. Proiektu hori Hegoafrikan errepikatzen ari da.

Iturria Geuk egina datu hauek abiaburutzat hartuta: <http://www.bothends.info/encycl/cases/printcase.php?id=94&id_language=2>.

## 14. koadroa *Garapenerako laguntzako eskaera-inprimakiak berriz definitzeko beharra*

Iraunkortasuna lankidetzaren arloetan barneratzeko, ezinbestekoa da erakunde finantzatzaileek lanerako tresna egokiak jar ditzaten, prozesu hori errazago gauzatu ahal izateko; esate baterako, ildo horretan, laguntzak eskatzeko inprimakiak idazteko modua aldatu beharko lukete.

Inprimaki horiek, normalean, orokorrean jasotzen dute iraunkortasuna, eta, batez ere, programen eta proiektuen iraunkortasun ekonomikoa hartzen dute ardatz gisa. Hortaz, egokia izango litzateke honako gai hauek barne hartzea:

- Tamaina handiko proiektuetan edo ekosistemetan inpaktu nabarmenak izan ditzaketen proiektuetan, ingurumeneko inpaktuaren ebaluazioa egitea.
- Proiektuen iraunkortasun ekologikoari buruzko atal zehatz bat jasotzea.
- Proiektu guztietan gutxienez ekintzen ehuneko jakin bat finkatzea, Milurtekoko Garapenerako Helburuen 7. xedea edota ingurumeneko akordio aldeaniztunen bat betetzeko.
- Iraunkortasunaren adierazleak sartzea, hartara, argi, zehatz eta erraz ebaluatu ahal izateko helburuak zenbateraino bete diren.

Iturria Geuk egina.

ere, ingurumeneko ikuspegia barne hartzea funtsezkoa da, bi helburu betetzen dituelako. Alde batetik, baliagarria da lankidetzako programek edo proiektuek eragin ditzaketen ingurumeneko inpaktu txar guztiak identifikatzeko eta saihesteko, hala zuzenak nola zeharkakoak. Bestetik, lagungarria da zein aukera dagoen jakiteko eta horretaz ohartzeko, hartara, ingurumen-arloko hobekuntzak irabazi gehigarriak sor diezazkien onuradun zuzenei eta zeharkakoei. Horrez gain, proiektua azaltzerakoan, proiektua idazten duen taldeak —parte hartzeko prozesu baten bidez— oinarrizko galdera batzuk egin beharko ditu, eta proiektuari lotutako ingurumeneko gai nagusiei buruzko *checklist* bat prestatu beharko du. Adibidez, honelako zerbait, baina sakontasun gehiegiz egin gabe (geuk egina EuropeAid erakundearen datuak abiaburutzat hartuta, 2007):

- Plangintzan jasotako berariazko helburuak eta ekintzak, eta, orobat, esku hartzen den alderdiko jarduera sozioekonomikoak bereziki sentikorrak edota kalteberak al dira hondamendi naturalen, klima-aldaketaren edota basamortutzeko prozesuaren aurrean?
- Helburu, ekintza eta jarduera horiek baliabide naturalen eskuragarritasunaren mende al daude erabat?
- Kontuan izan al dira proiektua teknikoki egiteko eragina izan dezaketen ingurumeneko baldintzak (mugak eta aukerak)?
- Zein dira proiektuari eta esku hartuko den sektoreari loturik dauden presioak edo ingurumeneko inpaktuak? (ingurumeneko inpaktuaren azterketa egin baldin bada, hondakinen inpaktuen onargarritasuna ebaluatu behar da).
- Zein dira proiektua egiteak eragin ditzakeen ingurumeneko ondorioak?
- Ingurumen-arloko ahalmen instituzionalek eta lege-esparruak behar diren oinarriak finkatzen al dituzte ingurumenaren eta proiektuaren artean dauden loturak kontuan izateko?
- Eskura dauden adierazleek argi islatzen al dituzte ingurumenarekin dauden loturak eta iraunkortasuneko kezka nagusiak?
- Ingurumen-aldagaia sartu al da kanpoko eragileen artean?

**Proiektua betearaztea.** Hona hemen aldi honetan lankidetzako proiektu guztiek kontuan izan behar dituzten alderdi batzuk:

- *Energia-iturriak eta haien erabilera.* Ahal dela, energia ekoizteko iturri berriztagarriak eta eraginkorrak bilatu eta erabili behar dira, denbora luzez hornikuntza bermatuko duten iturriak. Bestalde, kontuan izan behar da tresna errazak eta eraginkorrak erabili behar direla; horrez gain, ezinbestekotzat jotzen da baliabide energetikoak erabiltzeko eta kudeatzeko sentsibilizazio eta prestakuntzako programak egitea, eta, orobat, ezartzeko hautatu diren instalazio energetikoak erabiltzen eta konpontzen jakiteko gaikuntza bereziko programak.
- *Ura eta bere kudeaketa.* Ur-hornidurako proiektuek, alde batetik, ur-hornidura egingo dute eta ahalik eta urik gutxien galduko dutela bermatuko dute, eta, bestetik, baliabidearen sorburua diren ekosistemak (ibai-arroak, iturburuak...) egoera onean zaintzeaz arduratuko dira, hartara, osasun publikoan eragina izan dezakeen inolako kutsadura-arazorik egon ez dadin.
- *Materialak eta produktuak hautatzea.* Iraunkortasuneko irizpideei jarraiki, arreta berezia egin behar zaio eskuratutako materialen bizitza-aldi osoari, ekoizten direnetik ezabatzen diren arte. Nahitaezkoa da honako alderdi hauek kontuan hartzea: materialen iraupena, haien jatorria (eta birziklatutakoak diren eta/edo birziklagarriak diren eta ziurtatuta dauden materialekin egindakoak bultzatzea, eta, orobat, tokiko ekoizpenaren eta ekoizpen ekologikoaren bidez lortutakoak sustatzea), ekoizteko moduak (bidezko merkataritza, gizakien osasunaren eta ingurumenaren errespetua...), ahalik eta lehengai gutxien baliatzea eta ingurumeneko inpaktua gutxitzea erosketa benetako eskariaren arabera antolatuz.[22]
Bestalde, kontuan hartu behar dira *bioeraikuntzako* gaiak, alde batetik, materialak hautatzeari begira, eta, bestetik, eraikinaren kokapenari, orientazioari, aprobetxamendu energetikoari eta horrelako alderdiei dagokienez.[23]
- *Mugikortasun iraunkorra.* Kontuan izan behar da proiektuan sartuta dauden langileentzat ibilgailu jakin bat erosterakoan edo garraiobide zehatz hautatzerakoan (besteak beste, $CO_2$-ren isurketak aintzat hartuta —adibidez, 15. koadroan agertzen diren garapen garbiko mekanismoak baliatuz— eta ahalegina eginez lankideek Ozeano Atlantikoan zehar bidaia gutxiago egin ditzaten), eta, era berean, jarduera bat egiteko tokia aukeratzerakoan (horren onura jasoko duten biztanleek sarbide erraza izan dezaten bilatuz —denbora, diru eta garraiobide aldetik—.
- *Hondakinak kudeatzea.* Lehenik eta behin, materialak murrizteko eta berriz erabiltzeko irizpideak bete behar dira, era horretan hondakinik ez sortzeko edo ahalik eta gutxien sortzeko. Horrez gain, biodegradagarriak eta birziklagarriak diren eta/edo osasun eta ingurumenerako kaltegarriak ez diren materialen erabilera bultzatu behar da. Bestalde, hondakinak kudeatzeko plan egokiak ezarri behar dira, egoera desberdinetara egokituta; ildo horretan, lehentasuna emango zaie hondakinak gutxitzeko, berriz erabiltzeko eta birklikatzeko prozesuei, eta errraustea eta ezabatzea, berriz, azken irtenbide gisa baizik ez dira erabiliko.
- *Ingurumeneko hezkuntza, antolatzeko gaitasuna eta politikak prestatzea.* Alde batetik, arreta berezia eduki beharko da natura-baliabideen erabilera eta kudeaketa egokia sustatzeko, eta, orobat, ingurumena zaintzeko. Beste alde batetik, egia da garapen teknologikoa oso garrantzitsua dela (laborantzak, zuhaitzak, arrainak eta azienda etengabe hobetzea, eta jardute iraunkorrak sustatzea ura, energia

**15. koadroa** *$CO_2$ isurketen borondatezko konpentsazioko programetan parte hartzeko irizpideak*

$CO_2$ isurketak konpentsatzeko ideiaren sorburua Kiotoko Protokoloan dago, eta, batez ere, garapen garbiko mekanismoaren bidez gauzatzen da. Garapen garbiko mekanismoaren oinarria honako hau da: inbertsioa egiten duen pertsona batek proiektu bat garatzen du berotegi-efektuko gasen isuriak murrizten dituen herrialde hartzaile batean —proiektu hori garatu gabe lortuko zukeen murrizte-maila gainditu— eta, horren truke, isurketen kredituak eskuratzen ditu. Tresna honi jarraiki, merkatuak isurketen eskaintza eta eskaera arautuko ditu, eta, horren ondorioz, $CO_2$ eraginkortasunez murriztuko da. Merkatuaren eraginkortasunean oinarrituta dagoen eredu honek pizten duen eztabaida gorabehera, kontua da gero eta gehiago zabaltzen ari dela borondatezko konpentsazioak egiteko aukera, gobernuz kanpoko erakundeak bezalako gizarte-talde askori begira. Tankera honetako proiektuak ugaldu arren, sarritan, horrekin batera ez da egoten egon beharreko gardentasuna; hala, beraz, gogoan izanik diruaren truke kutsatzea ez dela baliagarria izan behar Iparreko berotegi-efektuko gasen isurketa handiak legeztatzeko, irizpide jakin batzuk kontuan izatea proposatu da; hona hemen irizpideak:

- Nire borondatezko konpentsazioaren baliokidea den dirua zuzenean inbertitu ahal da klima-aldaketa arintzeko proiektuetan?
- Zer-nolako proiektuak finantzatuko dira konpentsazioekin?
- Finantzatutako proiektua egin ahal izan da borondatezko konpentsazioek ekarritako onurei esker, edo bestela ere gauzatu ahal izango zen?
- Zein alde geografikotan egingo da proiektua (herrialde txirotuetan edo garatzeko bidean dauden herrialdeetan)?
- Konpentsazioaren zein diru-zati baliatuko da proiektua Hegoan garatzeko, eta zein zati baliatuko da, berriz, administrazioko kostuak ordaintzeko?

Iturria Geuk egina.

eta beste baliabide naturak batzuk erabiltzeari dagokionez), baina teknologia berriak erabiltzeko, normalean, ordaindutako prezioak, krediturako sarbidea, inputak, eta maiz kontuan hartzen ez diren beste zerbitzu eta laguntza-molde asko dituzten merkatuak behar izaten dira (IAASTD, 2008: 17). Horrenbestez, garrantzizkoa da antolatzeko gaitasuna, politiken prestakuntza eta garapen instituzionala azpimarratzea, hartara, esparru egonkorra lortu ahal izateko, esku hartuko den alderdietan iraunkortasuneko politikak ezartze aldera.

**Jarraipena eta ebaluazioa.** Iraunkortasuneko adierazleei dagokienez,[24] behar bezala egokitzea gomendatzen da, eskualde bakoitzak dituen ingurumeneko bereizgarriak, datu zehatzen eta egiaztatuen eskuragarritasuna, eta lankidetzako programa eta proiektu bakoitzak ardatz gisa duen arlo zehatza kontuan izanik (EuropeAid, 2007: 168). Adierazle berriak sartu behar dira proiektuak ekosistemetan dituen inpaktu onak eta txarrak (zuzenak eta zeharkakoak) neurtzeko, eta, orobat, funtsezkoak diren baliabideak era egokian kudeatu behar dira proiektua betearazterakoan: ura, energia, hondakinak, mugikortasuna, obrak, eta abar. Esate baterako, proiektuaren ezaugarrien arabera, karbonoaren balantzea eta funtsezko baliabide naturalen (basoen, hezeguneen, akuiferoen, etab.) egoera ezarri ahal izango da, eta, horrez gain, energiaren bataz besteko kontsumoa, sortutako hondakinak (per capita / urtean), nekazaritza ekologikoko produktuen eta basoko edo itsasoko produktu ziurtatuen proportzioa, eta lehengaiak eraldatzeko tokiko prozesua neurtu ahal izango dira.

Ebaluatzeko lana, normalean, erakunde independenteen esku uzten da; eta prozesu horretan ingurumena hartu behar da kontuan ohiko irizpideak ezartzerakoan; hona irizpideak:

- Egokitasuna: proiektuan kontuan hartu al ziren arazoen azterketan atzemandako ingurumeneko alderdiak?
- Eraginkortasuna: proiektuak bete al ditu ingurumen aldetik zituen baldintzak eta helburuak?
- Efizientzia: proiektuak eraginkortasunez erabili al ditu ingurumeneko baliabideak?
- Iraunkortasuna: proiektuaren emaitzak arriskuan al daude ingurumenaren narriaduraren ondorioz (edo baliabideak txirotzearen ondorioz)?
- Inpaktua: zein izan dira proiektuak garapen iraunkorrari egin dizkion ekarpenak, eta zein izan dira proiektuaren helburuetatik kanpo dauden gizarte- eta ingurumen-arloko ondorioak?

Proiektuak identifikatzeko aldian ingurumeneko inpaktuaren ebaluazioa egin baldin bada, hor zehatz aztertu beharko da ingurumeneko inpaktuaren ebaluazioak aurreikusitako inpaktuei buruz egindako iragarpenak bete ote diren, eta ingurumen aldeko monitorizazio-lana eraginkorra izan ote den.

## Beste gogoeta batzuk: Hego-Iparraren arteko lankidetzak izan dezakeen indarra

Bateratzeko eta uzkurtzeko egoeran (Ikusi «Garapenkeriazko eredua gainditzeko etorkizun baterantz»), azterketa honetako egileok lankidetzan era askotako norabideak bultzatzearen alde azaldu gara, gure ustez, iraunkortasuna lortzeko bidean ezinbestekoak baitira hala lankidetza nola elkarren arteko ikaskuntza. Ildo horretan, bereziki nabarmendu nahi dugu Hego-Iparraren arteko lankidetza, mota horretako lankidetza ez baita orain arte halakotzat hartu, eta, beraz, dauden kasuak bakanak eta ezezagunagoak izan baitira. Gure ustez, oso garrantzitsua da Hego-Iparra norabidean doan lankidetzan fluxu nabarmena lortzea, era horretan, Iparreko biztanleek elkarren artean eta ingurunearekin harremanetan jartzeko dauden beste modu batzuen berri izan ditzaten. Hego-Iparra norabidean doan lankidetzaren kontzeptuak Hegoko biztanleek zuzenean edo zeharka Iparreko biztanleei egiten dizkieten ekarpenen balioa azpimarratzen du, eta, gainera, aditzera ematen du horrelako lankidetzak indartuko eta antolatuko direla, era egituratuan eta onartuan, hartara, gero eta sarriago eta normaltasun gehiagoz egin daitezen. Hala, bada, komenigarritzat jotzen da, lankidetza-mota hau modu sistematizatuan eta plangintzari jarraiki bultzatzea, helburu zehatz batzuk izanik eta behar bezala garatutako tresnak baliatuz, hartara, ildo horretan egiten diren jardueren emaitzei ahalik eta etekinik handiena atera ahal izateko.

Bereziki nabarmendu behar dira Hegoko erkidego batzuekin izan diren esperientzia batzuk. Esperientzia horiek erkidego horietako jakintsuen (adibidez, xamanen), nekazaritzako elkarteen edo emakume-taldeen bidez egin dira, horiek beren ezagutzen eta jakintzen berri eman diete Iparreko biztanle-gune jakin batzuei, hezkuntza-zentroek antolatu dituzten prestakuntzako ikastaroetan (hori gutxitan egin da), edota mintegietan, ikastaroetan eta gizarteko erakundeek bultzatu dituzten hautabidezko esperientzietan. Hautabidezko esperientzia berritzaile horien artean, bereziki nabarmendu behar ditugu Mugarik Gabe gobernuz kanpoko euskal erakundeak egin dituen ikus-entzunezko esperientziak. Izan ere, *Gurutzatutako begiradak* izeneko dokumentala prestatu du, eta hor

**16. koadroa** *Klimari buruzko Itunaren zooma*

Klimari buruzko Ituna 1990. urtean sortu zen, babes klimatikoa bultzatzen duen sare bat da, eta, guztira, 1.400 hiri, udalerri eta barruti biltzen ditu, bai eta erakunde eta bazkide batzuk ere.

Alde batetik, herrialde industrializatuetan tokiko estrategiak jartzen ditu abian berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko, batez ere energia eta garraioaren sektoreak ardatz gisa hartuta. Bestetik, zenbait programa jarduera eta neurri egin edota hartzen ditu gizartean kontzientzia gehiago egon dadin baso tropikalen eta biztanle indigenen zaintzak eta babesak duen garrantziari buruz, eta, orobat, legez kanpoko baso-mozketen bidez lortutako zur tropikalaren erosketa gutxitu dadin, tokiko agintaritzak modu eredugarrian jardun ondoren. Horretarako, Amazonas Ibai-arroko Erakunde Indigenen (COICA-ren) parte-hartze eta lankidetza estua dute ondoan, erakunde hori baso tropikaletako biztanle indigenen ordezkaritzan aritzen baita —elkarteko presidenteordea den aldetik—. Era horretan, erakundeak ondo onartu du egituraren atzeraelikatze horrek duen garrantzia, eta erabakitzeko organoetan biztanle indigenen ikuspegia hartzen du barne, biztanle horiek ordezkaritza baitute zuzendaritza-batzordean eta, horrez gain, ardura duten karguak baitituzte erakundean.

Iturria Geuk egina, Alianza del Clima-ren web orria abiaburutzat hartuta (http://www.klimabuendnis.org).

Boliviako emakume indigenen talde batek europarrei buruz duen ikuspegia azaldu du.[25] Era horretako lanak ikusita, hausnarketa egin dezakegu munduan errealitatea ikusteko dauden modu desberdin eta ugariei buruz, pentsamendu bakarraren aurrez aurre jarrita, modu ugari horiek ikuspegi berriak ematen baitizkigute Iparrean hautabideak bilatzeko lanean sakontzeko. Bestalde, beste ekimen eta sinergia batzuk ere guztiz interesgarriak dira, hala nola, Klimari buruzko Ituna. Izan ere, ekimen horiek guztiak onuragarriak dira Europan Amazonas ibai-arroko indigenekin lankidetzan aritzeko, eta, era berean, Amazonian Europako bazkideekin elkar hartuta jarduteko (ikusi 16. koadroa). Hargatik, gure ustez, garapenerako lankidetzarako bideratzen den esleipen ekonomikoaren ehuneko bat (adibidez, %5) zuzendu beharko litzateke Hego-Iparra norabidean doan lankidetzako proiektuak bultzatzeko.

# 5 Ondorio orokorrak

Jakin badakigu proposatu ditugun aldaketak gauzatzea ez dela kontu erraza, eta, gainera, eskumena duten instituzioek bultzada eman eta konpromiso handia hartu behar dutela horretarako. Bestalde, lankidetzaren eta ingurumenaren arloan lanean aritzen diren elkarteek, erakundeek eta pertsonek ahalegin handia egin beharko dute irizpideak eta estrategiak ikasteko, ulertzeko eta bateratzeko. Alabaina, ziur gaude aldaketa horiek egin ahal izango direla, behar-beharrezkoak direlako. Hortaz, lankidetza, jarraipena, etengabeko ikaskuntza eta sinergiak era estrategikoan indartzea prozesu lagungarriak izango dira Ipar eta Hegoaren arteko bateratzearen oinarriak finkatzeko, eta ingurumen- eta gizarte-arloko justizia orokorreko etorkizunerantz jotzeko. Norabide askotako eta osoko ikuspegi batetik abiatuta, bada garaia *iraunkortasunerako lankidetzaren* alde egin dezagun, hala teorian nola praktikan.

## OHARRAK

1. *Iparra* eta *Hegoa* hitzek arazo semantikoak ekartzen dizkigute txirotutako herrialdeak mapa batean kokatu nahi ditugunean. Izan ere, herrialde horietako batzuk iparreko hemisferioan daude, eta, gainera, Iparreko gizartean dauden estratu batzuk, berez, Hegoari dagozkio, eta alderantziz; hala, bada, Iparrean hegoaldeak daude, eta Hegoan iparrak. Arazo horiek gorabehera, nahiago dugu hitz horiek erabili, eta ez beste adierazpide batzuk, beste adierazpideak ezegokiagoak direlako gure iritziz, esate baterako, «Hirugarren Munduko herrialdeak», «herrialde azpigaratuak» edo «garapen bidean dauden herrialdeak» esapideak.
2. Industriako iraultza hasi zenetik isuri diren berotegi-efektuko gasen %80 herrialde industrializatuek isuri dute.
3. Era berean, ingurumenaren narriadurak gizartean sorraraz ditzakeen inpaktuak desberdinak izango dira landa-inguruneko erkidego batean edo hiri-inguruneko erkidego batean, bi egoerak guztiz heterogeneoak direlako. Heterogeneotasun horren ondorioz, erkidego batzuek eta besteek aurrez aurre dituzten ingurumeneko arazoak desberdinak dira: hala, landa-ingurunean, jendea uzten mende eta ingurunetik eskuratzen dituen beste baliabide batzuen mende dago erabat; hiri-ingurunean, berriz, arazoak bestelakoak dira, esate baterako, biztanleria oso metatuta dagoela, hondakinak pilatzen direla eta ura eta airea kutsatuta daudela, besteak beste.
4. Erregai fosilen aldiaren bukaerak izango dituen ondorioei buruz informazio gehiago nahi baduzu, ikusi Bermejo (2006, 2008).
5. 1960. urtean argitara emandako *Hazkunde ekonomikoaren aldiak* izeneko liburuan, Rostow-ek hainbat alditan egituratuta dagoen garapen-eredu bat landu zuen: tradiziozko gizarteetan bizirik dagoen eta azpigarapeneko jatorrizko egoerari dagokion lehenbiziko alditik hasi, eta pilaka egindako kontsumoaren aldira iritsi arte. Teoria determinista horren arabera, garapenerako bidezidor unibertsal bat dago, eta bertatik herrialde guztiak ibiltzen dira; bestalde, azken helburua da herrialde guztiek garapen-maila berbera lortzea, industrializatuta dauden herrialdeek dutenaren modukoa.
6. Planetak dituen mugei buruz informazio gehiago nahi baduzu, ikusi, adibidez, Meadows eta beste batzuk (1972), eta Meadows, Meadows eta Randers (2006).
7. Kuznets-en Ingurumeneko Kurbari buruzko teoriaren arabera, egia da garapenaren lehenbiziko aldietan kutsadura gehiago isurtzen dela eta baliabide gehiago kontsumitzen dela, baina, per capita errenta-maila jakin batetik gora egon eta hobekuntza teknologiko zehatz batzuk eskuratu ondoren, joera hori alderantzikatu egiten da, eta, era horretan, ingurumenaren narriaduraren bilakaerako kurbek alderantzikatutako U baten itxura hartzen dute errentaren arabera.
8. Bioekonomia diziplinak, Nicholas Georgescu-Roegen-en azalpenetatik abiatuta, hausnarketa egiten du ekonomiaz biosferaren esparrutik, hau da, izaki bizidunaren logikara zabalik egonda. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi Carpintero (2006).
9. Barne-produktu gordina (BPGd) diru-balio bat da, eta bera kalkulatzeko herrialde edo ekonomia batek denboraldi jakin batean ekoizten dituen eta, gero, saltzen diren edo dirua balio duten azken zerbitzuak edo ondasunak batzen dira. Gaur egun per capita barne-produktu gordina edo per capita errenta hedatu den aberastasuna eta/edo ongizatea neurtzeko erabiltzen da (errenta kalkulatzeko, guztizko barne-produktu gordina biztanle-kopuruen artean zatitzen da).
10. Aberastasun ekoizkorren definizioaren sustrai teorikoak Smith, Malthus eta batez ere Ricardo ekonomialarien lanetan daude.
11. Gehiago jakin nahi baduzu, ikusi hau: <http://www.llacta.org/organiz/coms/2008/com0005.htm> edo «Des-desarrollo: radical propuesta desde el Sur» artikulua, *Biodiversidad, Sustento y Culturas*, 54 (2007ko urria).
12. *Gainkontsumo* hitza erabiltzen da «zentzuzko» beharrizanak gainditzen duen eta norberaren ongizatearen aurka ere egiten duen kontsumoa izendatzeko.
13. Countdown 2010 sarea 2004. urtean jarri zuten abian, eta bazkideen sare zabala du; tartean estatuetako eta tokiko gobernuak eta gobernuz kanpoko erakundeak daude (hala nola, SEO/BirdLife, Greenpeace, WWF, eta abar), 2002. urtean egin zen Johannesburgoko Gailurrean adostu zen konpromisoa hartu du oinarritzat, alegia, 2010. urterako gaur egun dagoen aniztasun biologikoaren galera-tasa era nabarmenean murriztea. Sareak laguntza ematen

die haren bazkideei eta mundu osoko gobernuei «2010 helburu» hori lor dezaten. Informazio gehiago izateko, ikusi hau: <http://www.countdown2010.net/>.

14. Hitzarmen horren oinarrian Lurraren Gailurrean izandako eztabaidak daude, baina, hala ere, hitzarmena 1994. urtean sinatu zen Parisen.
15. Europako tokiko agintaritzen eta herrien Lurraren Gailurreko 21 Programaren esparruan, Aalborg+10 Biltzarraren 10. aztergaia, «Tokitik mundura» izenekoa, lankidetza deszentralizatuari buruzkoa da. Puntu horren bidez, udalerri iraunkorrek hitz ematen dute lanean arituko direla «herrien eta hirien arteko nazioarteko lankidetza sustatzeko eta arazo globalei tokiko erantzunak emateko, tokiko gobernuekin, erkidegoekin eta interesa duten alderdi guztiekin elkartuta» (http://www.aalborgplus10.dk/media/aalborg_commitments_spanish_final.pdf).
16. Garapenerako lankidetza Europar Batasunaren «lehen zutabeetako» bat da (erkidegoko metodoa), eta, beraz, Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak onetsi dituzten arlo honetako nazioarteko akordioak negoziatzerakoan, elkarrekin erabakitzeko prozedura erabili du Europako Batzordeak. Alabaina, Jokin Alberdi Bidagurenek dioenez (2006), «Europako Batasunaren eta kide diren estatuen politika koherentearen irudiaren aurrez aurre jarririk, oraindik ere irudi hau gailentzen da: Europar Batasuneko instituzioen politika baten eta estatuetako agentzien 25 politiken irudia. Badirudi, oraindik ere erkidegoko lankidetzaren gobernu arteko ikuspegia nagusitzen dela, ikuspegi federalista sustatu beharrean».
17. Informazioa hemen dago eskuragarri: <http://ec.europa.eu/europeaid/where/worldwide/environment/details_fr.htm>.
18. Espainiako Lankidetzako 2005-2008 Plan Zuzentzaileak 4. kapituluan dioenari jarraiki, besteak beste, alderdi hauek aipatzen ditu: biodibertsitatearen eta ekosistema kalteberen kudeaketa iraunkorra, oinarrizko produktuen ekoizpen iraunkorra, ingurumen-arloan instituzioak sendotzea, tokirako egokiak diren ingurumeneko teknologiak eskuratzea, pertsona txiroak inguruneari begira duten urrakortasuna gutxitzea, ingurumeneko hezkuntza bultzatzea, eta abar (Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa, 2005).
19. Ikusi, adibidez, Repsol-ek dituen gizarteko konpromisoak, bere web gunean: <http://www.repsol.com/es_es/todo_sobre_repsol_ypf/responsabilidad_corporativa/compromiso_social/compromiso_social.aspx>.
20. Koaderno hau idazten ari ginen unean, biodibertsitatearen estrategia prestatzen ari ziren.
21. Iparreko gobernuek eta erakundeek hitzarmenak sinatu dituzte $CO_2$-ren borondatezko konpentsazioak egiteko, Gerriko Berde Mugimenduaren bidez. Esate baterako, horrelaxe jokatu du Eusko Jaurlaritzak, 2006. urtean proiektu bat jarri baitzuen abian gobernuko jardueren ondorioz autoz eta hegazkinez egindako bidaietan egindako isuriak konpentsatzeko, Kenyan baso-berritzeko jarduerak eginez.
22. Produktuak edo zerbitzuak modu iraunkorrean eskuratzeari buruz informazio gehiago izateko: <http://www.compraverde.org>.
23. Ikusi, adibidez, Asociación Española de Bioconstrucción elkartearen web orria: <http://www.ae-bioconstruccion.org>.
24. Informazio gehiago izateko, ikusi Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietako Sailak eta Estatistika Sailak egindako lanak, lan horietan adierazleen multzo bat baitago jasota Milurtekoko Helburuak lortu diren neurtzeko (http://www.un.org/esa/sustdev). Europako Ingurumen Agentziak ere ingurumeneko adierazle xehatuak ditu (http://themes.eea.europa.eu/indicators).
25. Mugarik Gabe erakundeari eta bere proiektu, jarduera eta material guztiei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi hau: <http://www.mugarikgabe.org>.

## BIBLIOGRAFIA

3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena.

23/1998 Legea, uztailaren 7koa, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzkoa, Espainia.

1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumeneko Erantzukizunari buruzkoa.

ALBERDI BIDAGUREN, J. (2006): «El futuro de la Cooperación al Desarrollo de la Unión Europea: "El Consenso Europeo" 2005», *Boletín de Recursos de Información* [Hegoa], 7 (apirila).

ARROW, K., eta beste batzuk (1995): «Economic Growth, Carrying Capacity and the Environment», *Science*, 95-04-28.

BÁRCENA, I., P. IBARRA eta M. ZUBIAGA (arg.) (2000): *Desarrollo sostenible: un concepto polémico*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

BARREIRA, A., P. OCAMPO eta E. RECIO (2007): *Medio ambiente y derecho internacional: una guía práctica*, Madril, Zuzenbide eta Ingurumeneko Nazioarteko Institutua.

BERMEJO, R. (1994): *Manual para una economía ecológica*, Madril, Bakeaz/Los Libros de la Catarata.

— (2001): *Economía sostenible. Principios, conceptos e instrumentos*, Bilbo, Bakeaz.

— (2002): «Reflexiones en torno a los límites naturales al crecimiento», hemen: J. A. DOMÍNGUEZ, O. VÁZQUEZ eta A. GAONA (arg.): *Trabajo social y medio ambiente: empleo, formación y participación*, Huelva, Huelvako Unibertsitatea, 21-56.

— (2005): *La gran transición hacia la sostenibilidad. Principios y estrategias de economía sostenible*, Madril, Los Libros de la Catarata.

— (2006): «El fin de la era de los combustibles fósiles: sus consecuencias», hemen: L. E. ESPINOZA GUERRA eta V. CABERO DIÉGUEZ (koord.): *Sociedad y medio ambiente*, Salamanca, Salamancako Unibertsitatea, 287-350.

— (2008): *Un futuro sin petróleo. Colapsos y transformaciones socioeconómicas*, Madril, Los Libros de la Catarata.

BIZTANLERIARI ETA BIZITZA KALITATEARI BURUZKO BATZORDE INDEPENDENTEA (1998): *Elegir el futuro: un programa radical para la mejora sostenible de la calidad de vida*, Madril, Instituto de Estudios Políticos para América Latina y África. Hemen dago eskuragarri: <http://www.euroSur.org/futuro/>.

CARPINTERO, O. (2006): *La bioeconomía de Georgescu-Roegen*, Bartzelona, Montesinos.

CMMAD (INGURUMEN ETA GARAPENERAKO MUNDUKO BATZORDEA) (1988): *Nuestro futuro común* (Informe Brundtland), Madril, Alianza Editorial.

CNUMAD (INGURUMEN ETA GARAPENARI BURUZKO NAZIO BATUEN HITZALDIA) (1992a): *Declaración de Río sobre el medio ambiente y el desarrollo* (Ingurumen eta Garapenari buruzko Rio de Janeiroko Deklarazioa). Nazio Batuek Ingurumenari eta Garapenari buruz 1992. urteko ekainean Rio de Janeiron (Brasil) egin zuten hitzaldian onartua.

— (1992b): *Convenio sobre la diversidad biológica* (Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena). Nazio Batuek Ingurumenari eta Garapenari buruz 1992. urteko ekainean Rio de Janeiron (Brasil) egin zuten hitzaldian sinatua.

DAILY, G. (1997): *Nature's Services. Societal Dependence on Natural Ecosystems*, Washington, Island Press.

DALY, H. E., eta J. B. COBB (1989): *Para el bien común*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.

DIAMOND, J. (2004): *Collapse. How Societies Choose to Fail or Succeed*, New York, Viking Press.

DUARTE, M., S. ALONSO, G. BENITO, J. DACHA, C. MONTES, M. PARDO, A. F. RÍOS, R. SIMÓ eta F. VALLADARES (2006): *Cambio global, impacto de la actividad humana sobre el sistema tierra*, Madril, Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena.

ESCOBAR, A. (2004): «El lugar de la naturaleza y la naturaleza del lugar: globalización o postdesarrollo», hemen: A. VIOLA (konp.): *Antropología del desarrollo. Teorías y estudios etnográficos en América Latina*, Bartzelona, Paidós, 170-216.

ESTEVA, G. (2004): «Desarrollo», hemen: A. VIOLA (konp.): *Antropología del desarrollo. Teorías y estudios etnográficos en América Latina*, Bartzelona, Paidós, 67-101.

EUROPAKO BATZORDEA (2006): *Agir ensemble, un engagement commun pour l'environnement planétaire. Coopération internationale dans les domaines de la biodiversité, du changement climatique et de la désertification*, Brusela, Europako Batzordea.

EUROPAKO ERKIDEGOEN BATZORDEA (1999): *Comunicación de la Comisión al Consejo relativa al «comercio justo»* («Bidezko merkataritzari» buruz Batzordeak Kontseiluari egindako jakinarazpena), Brusela, Europako Erkidegoen Batzordea, COM(1999)619 final.

— (2001a): *Comunicación de la Comisión. Desarrollo sostenible en Europa para un mundo mejor: Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible* (Batzordearen Jakinarazpena. Garapen iraunkorra Europan mundu hobea lortzeko: Garapen Iraunkorra lortzeko Europar Batasunak duen Estrategia), COM(2001)264 final.

— (2001b): *Comunicación de la Comisión al Consejo, al Parlamento Europeo, al Comité Económico y Social y al Comité de las Regiones sobre el Sexto Programa de Acción de la Comunidad Europea en materia de Medio Ambiente, «Medio Ambiente 2010: el futuro está en nuestras manos»* (Batzordeak Europako Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako Jakinarazpena, Ingurumen arloan Europar Batasunak duen «Ingurumena 2010: etorkizuna gure eskuetan dago» izeneko Ekintzako Seigarren Programari buruzkoa dena), COM(2001)31 final.

— (2003): *Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo. El cambio climático en el contexto de la cooperación al desarrollo* (Batzordeak Europako Kontseiluari eta Europako Parlamentuari egindako Jakinarazpena. Klima-aldaketa garapenerako

lankidetzaren esparruan), Brusela, Europako Erkidegoen Batzordea, COM(2003)85 final.
— (2007): *Documento de trabajo de la Comisión. Informe de la UE sobre la coherencia en la política de desarrollo* (Batzordearen Lanerako Agiria. Garapenaren arloko politikan dagoen koherentziari buruz Europar Batasunak egindako txostena), Brusela, Europako Erkidegoen Batzordea, {SEC(2007)1202}, COM(2007)545 final.
EUROPAKO PARLAMENTUA, KONTSEILUA ETA BATZORDEA (2006): *Declaración conjunta del Consejo y de los Representantes de los Gobiernos de los Estados miembros reunidos en el seno del Consejo, del Parlamento Europeo y de la Comisión sobre la política de desarrollo de la Unión Europea titulada «El consenso europeo sobre desarrollo»* (Kontseiluak eta kide diren estatuetako gobernuen ordezkariek Europako Kontseiluaren, Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen baitan bilduta batera egindako adierazpena, Europar Batasunaren garapenerako politikari buruzkoa dena; hona izenburua «Garapenaren arloko Europako Adostasuna»), Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 46, 2006ko otsailaren 24koa.
EUROPAR BATASUNA (2006): *Versiones consolidadas del Tratado de la Unión Europea y del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea* (Europar Batasunaren Itunaren eta Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren bertsio bateratuak), Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala C 321, 2006ko abenduaren 29koa.
EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA (2006): *Revisión de la Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible* (Garapen Iraunkorra lortzeko Europar Batasunak duen Estrategiaren Berrikuspena), 10117/06.
EUROPEAID (2007): *Environmental Integration Handbook for EC Development Co-operation*, Brusela, Europako Batzordea. Hemen dago eskuragarri: <http://ec.europa.eu/europeaid/multimedia/publications/index_en.htm>.
EUSKO JAURLARITZA (2007): *Euskal Autonomia Erkidegoko II. Ingurumen Esparru Programa 2007-2010. Etorkizuna diseinatzen*, s. l., Eusko Jaurlaritza.
— (2008a): *2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoa*, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
— (2008b): *Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko Euskal Plana 2008-2012*, s. l., IHOBE.
FECHNER, J., J. COROMINAS, B. SCHAEFER, K. FIRUS eta R. de VRIES (2003): *Tune Up! Guideline*, Viena, 17&4 Organisationsberatung. Hemen dago eskuragarri: <http://www.17und4.at/downloads/tuneup/tuneupguideline.pdf>.
GARRIDO PEÑA, F. (2007): «Sobre la epistemología ecológica», hemen: F. GARRIDO, M. GONZÁLEZ DE LA MOLINA, J. L. SERRANO eta J. L. SOLANA: *El paradigma ecológico en las ciencias sociales*, Bartzelona, Icaria.
GEORGESCU-ROEGEN, N. (1996): *La Ley de la Entropía y el proceso económico*, Madril, Fundación Argentaria.
GIZA INGURUNEARI BURUZKO NAZIO BATUEN KONFERENTZIA (1972): *Declaración de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Humano* (Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Konferentzian egin zen Adierazpena), Stockholm.
GONZÁLEZ, J. A., C. MONTES eta I. SANTOS (2007): «Capital natural y desarrollo: por una base ecológica en el análisis de las relaciones Norte-Sur», *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 100, 63-77.
— C. MONTES, I. SANTOS eta C. MONEDERO (2008): «Invirtiendo en capital natural: un marco para integrar la sostenibilidad ambiental en las políticas de cooperación», *Ecosistemas. Revista Científica y Técnica de Ecología y Medio Ambiente*, 17 (2), 52-69.
GONZÁLEZ, E., K. SÁEZ eta J. LAGO (2008): *Atlas de la energía en América Latina y Caribe. Las inversiones de las multinacionales españolas y sus impactos económicos, sociales y ambientales*, Madril, Paz con Dignidad/Observatorio de Multinacionales en América Latina.
IAASTD (EZAGUTZAK, ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIAK NEKAZARITZAREN GARAPENERAKO DUTEN ZEREGINAREN NAZIOARTEKO EBALUAZIOA) (2008): *Resumen de la evaluación mundial preparado para los responsables de la toma de decisiones*. Hemen dago eskuragarri: <http://www.agassessment.org/docs/Global_SDM_050508_Spanish.pdf>.
ILLICH, I. (1992): «Needs», hemen *The Development Dictionary: A Guide to Knowledge as Power*, Londres eta New Jersey, Zed Books.
IPCC (KLIMA ALDAKETAKO GOBERNUEN ARTEKO ADITUEN TALDEA) (2002): *Cambio climático y biodiversidad. Documento técnico V del IPCC*, s. l., Klima Aldaketako Gobernuen arteko Adituen Taldea. Hemen dago eskuragarri: <http://www.ipcc.ch/pdf/technical-papers/climate-changes-biodiversity-sp.pdf>.
KANPO ARAZOETARAKO ETA LANKIDETZARAKO MINISTERIOA (2005): *Plan Director de la Cooperación Española 2005-2008* (Espainiako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea, 2005-2008), Madril, Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa, Nazioarteko Lankidetzarako Estatuko Idazkaritza.
KLIMA ALDAKETARI ETA POBREZIAREN AURKAKO BORROKARI BURUZKO LAN TALDEA (2007): *Guía básica sobre cambio climático y cooperación para el desarrollo*, Madril, Fundación IPADE. Hemen dago eskuragarri: <http://www.greenpeace.org/espana/reports/gu-a-basica-sobre-cambio-clima>.
LARRAIN, S. (2001): *The Dignity Life as an Indicator of Socio-environmental Sustainability. Advances from the Concept of Minimum Life towards the Concept of Dignified Life*, Santiago (Txile), Politika Ekologikoko Institutua.
LATOUCHE, S. (2008): *La apuesta por el decrecimiento. ¿Cómo salir del imaginario dominante?*, Bartzelona, Icaria.
LIPIETZ, A. (2002): *¿Qué es la ecología política? La gran transformación del siglo XXI*, Santiago (Txile), LOM Ediciones.
MAATHAI, W. (2008): *Movimiento Cinturón Verde. Compartiendo propuestas y experiencias*, Madril, Los Libros de la Catarata.
MARCELLESI, Florent (2007): «Desarrollo, decrecimiento y economía verde», *The Ecologist para España y Latinoamérica*, 31. Hemen dago eskuragarri: <http://www.theecologist.net/files/articulos/31_art3.asp>.
— (2008a): «El espejismo de los agrocombustibles», *El Correo*, 08-06-06.
— (2008b): «Nicholas Georgescu-Roegen, padre de la bioeconomía», *Ecología Política*, 35, 143-144.
MARKS, N., A. SIMMS, S. THOMPSON eta S. ABDALLAH (2006): *The Happy Planet Index: An index of human well-being and environmental impact*, Londres, New Economics Foundation. Hemen dago eskuragarri: <http://www.neweconomics.org>.
MARTÍNEZ ALIER, J. (1995): *Principios de economía ecológica*, Madril, Fundación Argentaria/Visor.
— (2004): *El ecologismo de los pobres*, Bartzelona, Icaria.
— eta A. OLIVERAS (2003): *¿Quién debe a quién? Deuda ecológica y deuda externa*, Bartzelona, Icaria.
MAX-NEEF, M., A. ELIZALDE eta M. HOPENHAYN (1986): *Desarrollo a escala humana: una opción para el futuro. Development Dialogue* aldizkariaren ale berezia.
MEADOWS, D., D. MEADOWS, J. RANDERS eta W. BEHERENS (1972): *Los límites del crecimiento*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.
— D. MEADOWS eta J. RANDERS (2006): *Los límites del crecimiento, 30 años después*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg.
MEYER, A. (2000): *Contraction and Convergence. A Global Solution to Climate Change*, Devon, Green Books.
MIES, M., eta V. SHIVA (1993): *Ecofeminism*, Toronto (Kanada), Fernwood.
MILLENNIUM ECOSYSTEM ASSESSMENT (2005): *Ecosystems and Human Well-Being. A Framework for Assessment*, Washington, D. C., Island Press. Hemen dago eskuragarri: <http://www.maweb.org>.
MOSANGINI, G. (2007): *Decrecimiento y cooperación internacional*, <http://www.rebelion.org/noticia.php?id=56547>.
— (2008): «Hacia otras prioridades en la cooperación: de las carencias del Sur a los excesos del Norte», *Ecología Política*, 35.
NAREDO, J. M. (2003): *La economía en evolución. Historia y perspectivas de las categorías básicas del pensamiento económico*, Madril, Siglo XXI.
— (2006): *Raíces económicas del deterioro ecológico y social: más allá de los dogmas*, Madril, Siglo XXI.
— (2008): «Necesidad y pobreza: reflexiones conceptuales y algunas cautelas estadísticas», *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 102, 39-45.
NAZIO BATUAK (1992): *Convención marco de las Naciones Unidas sobre el cambio climático* (Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa), New York, Nazio Batuak.
— (1994): *Convención de las Naciones Unidas de lucha contra la desertificación en los países afectados por sequía grave o desertificación, en particular en África* (Nazio Batuen Konbentzioa, lehorte larriak jota dauden edo basamortu bihurtzen ari diren herrialdeetan [bereziki Afrikan] basamortutzeko prozesuari aurre egiteko dena), Paris, 1994ko ekainaren 17a.
— (2008): *Objetivos de Desarrollo del Milenio. Informe 2008* (Milurtekoko Garapen Helburuak. 2008ko txostena), New York, Nazio Batuak. Hemen dago eskuragarri: <http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/pdf/MDG_Report_2008_SPANISH.pdf>.
NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA (2000): *Declaración del Milenio* (Milurtekoko Adierazpena), A/RES/55/2.
— (2007): *Declaración de las Naciones Unidas sobre los derechos de los pueblos indígenas* (Nazio Batuek Herrialde Indigenen Eskubideei buruz egindako Deklarazioa).
NEKAZARITZAKO MUNDUKO FOROA (2008): *Jornada internacional. El sector agrario ante la crisis alimentaria: documento de conclusiones*. Informazio gehiago hemen: <http://www.ruralforum.net>.
NORGAARD, R. B., eta T. O. SIKOR (1999): «Metodología y práctica de la agroecología», hemen: M. A. ALTIERI: *Agroecología: bases científicas para una agricultura sustentable*, Montevideo (Uruguai), Nordan-Comunidad.
ONAINDIA OLALDE, M. (2007): «Sostenibilidad ecológica», *Forum de Sostenibilidad*, 1, 39-49.
ORTEGA CERDÀ, M. (2006): *La deuda ecológica española. Impactos ecológicos y sociales de la economía española en el extranjero*, Brenes (Sevilla), Muñoz Moya.
*Pacto de Estado contra la pobreza firmado por los grupos políticos a propuesta de la Coordinadora de ONG para el Desarrollo-España* (Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Espainiako Koordinakundeak

proposatuta alderdi politikoek pobreziari aurre egiteko egindako Estatuko Ituna), Madril, 2007ko abenduaren 19a.

PNUD (Nazio Batuetako Garapen Programa): (2003): *Informe sobre Desarrollo Humano 2003. Los Objetivos de Desarrollo del Milenio: un pacto entre las naciones para eliminar la pobreza,* Madril, Mundi-Prensa. Hemen dago eskuragarri: <http://hdr.undp.org/en/reports/global/hdr2003/chapters/spanish/>.

— (2007): *Informe sobre Desarrollo Humano 2007-2008. La lucha contra el cambio climático: solidaridad frente a un mundo dividido,* Madril, Mundi-Prensa. Hemen dago eskuragarri: <http://hdr.undp.org/en/reports/global/hdr2007-2008/chapters/spanish/>.

PNUMA (Nazio Batuen Ingurumen Programa) (2004): *La mujer y el medio ambiente,* Nairobi, PNUMA. Hemen dago eskuragarri: <http://www.unep.org/Documents.Multilingual/Default.Print.asp?DocumentID=428&ArticleID=4743&l=en>.

Ramiro, P., E. González eta A. Pulido (2007): *La energía que apaga Colombia. Los impactos de las inversiones de Repsol y Unión FENOSA,* Bartzelona, Icaria.

Recio, Albert (2008): «Apuntes sobre la economía y la política del decrecimiento», *Ecología Política,* 35.

Riechmann, J. (koord.) (1998): *Necesitar, desear, vivir. Sobre necesidades, desarrollo humano, crecimiento económico y sustentabilidad,* Madril, Los Libros de la Catarata.

— (2006): *Monetarización de los impactos del cambio climático: problemas y debates,* Bilbo, Bakeaz (Cuadernos Bakeaz, 78).

Rostow, J. (1961): *Las etapas del crecimiento económico,* Mexiko, Fondo de Cultura Económica.

Russi, D. (2003): *Deuda ecológica. ¿Quién debe a quién?,* Bartzelona, Icaria.

Ruz, A. (1993): *El pueblo maya,* Mexiko, Salvat.

Sachs, W., eta T. Santarius (zuz.) (2007): *Un futuro justo. Recursos limitados y justicia global,* Bartzelona, Icaria.

Schneider, F. (2002): «Point d'efficacité sans sobriété. Mieux vaut débondir que rebondir», *Silence,* 280.

SECIPI (Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarako Estatuko Idazkaritza) (2002): *Estrategia de la cooperación española en medio ambiente* (Ingurumen-arloko Espainiako lankidetzako estrategia), Madril, Kanpo Arazoetarako Ministerioa.

Sen, A., eta B. Kliksberg (2007): *Primero la gente. Una mirada desde la ética del desarrollo a los principales problemas del mundo globalizado,* Bartzelona, Ediciones Deusto.

Stern, N. (2007): *Informe Stern. La verdad del cambio climático,* Bartzelona, Paidós.

Talberth, J., C. Cobb eta N. Slattery (2007): *The Genuine Progress Indicator 2006. A Tool for Sustainable Development,* Oakland (Kalifornia), Redefining Progress. Hemen dago eskuragarri: <http://www.rprogress.org>.

Vemuri, A. W., eta R. Costanza (2006): «The role of human, social, built, and natural capital in explaining life satisfaction at the country level: toward a National Well-Being Index (NWI)», *Ecological Economics,* 58, 119-133.

Wallerstein, I. (1979): *El moderno sistema mundial. La agricultura capitalista y los orígenes de la economía-mundo europea en el siglo XVI,* 3. lib., Madril, Siglo XXI.

— (2006): *Análisis de sistemas-mundo. Una introducción,* Madril, Siglo XXI.

— (2007): *Geopolítica y geocultura. Ensayos sobre el moderno sistema mundial,* Bartzelona, Kairós.

WWF (2008): *Informe Planeta Vivo 2008,* Cali (Kolonbia), WWF Kolonbia. Hemen dago eskuragarri: <http://assets.wwf.es/downloads/informe_planeta_vivo_2008.pdf>.

Florent Marcellesi eta Igone Palacios, *Iraunkortasunari buruzko gogoetak garapenerako lankidetzan sartzea,* Cuadernos Bakeaz, 88. zk.
**Jatorrizko titulua:** *Integración de consideraciones de sostenibilidad en la cooperación para el desarrollo*
**Gaztelaniazko testuaren itzulpena:** Irene Hurtado Mendieta.
© Florent Marcellesi eta Igone Palacios, 2008; © Bakeaz, 2008.

Koaderno hau argitara eman ahal izan dugu **Bizkaiko Foru Aldundiaren** Berdintasun eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusiak eta **Fundación Biodiversidad** fundazioak eman duten finantziazioari esker.

*Lanotan adierazitako iritziak nahitaez ez datoz bat Bakeaz erakundeak dituenekin.*

**Cuadernos Bakeaz** argitalpen monografikoa eta bi hilez behingoa da eta zentroari lotutako edo zentroarekin lankidetzan aritzen diren jendeak egiten du. Defentsaren ekonomia, lankidetza politikak, bakerako hezkuntza, geopolitika, gizarte mugimenduak, ekonomia eta ekologiari lotutako gaiak jorratzen ditu; era berean, gai horietan interesa duten pertsona edo erakundeei ikerketa labur eta zorrotzak eskaintzen ahalegintzen da pentsamolde kritikoan oinarrituta eta arazo horiekiko konpromisotik abiatuta.

**Argitalpenaren zuzendaria:** Josu Ugarte • **Koordinazio teknikoa**: Blanca Pérez • **Aholkulariak:** Martín Alonso, Joaquín Arriola, Nicolau Barceló, Anna Bastida, Roberto Bermejo, Jesús Casquete, Xabier Etxeberria, Adolfo Fernández Marugán, Carlos Gómez Gil, Rafael Grasa, Xesús R. Jares, José Carlos Lechado, Arcadi Oliveres, Jesús M.ª Puente, Jorge Riechmann, Juan Manuel Ruiz, Pedro Sáez, Antonio Santamaría, Angela da Silva, Ruth Stanley, Carlos Taibo, Fernando Urruticoechea • **Diseinua:** Jesús M.ª Juaristi • **Maketazioa:** Mercedes Esteban Meriel • **Inprimatzailea:** Grafilur • **ISSN:** 1133-9101 • **Lege-gordailua:** BI-295-94.

**Urteko harpidetza** (6 zenbaki): 24,00 euro • **Ordaintzeko modua:** bankuan helbideratuta (adierazi 20 digituak, entitateari, sukurtsalari, kontrolari eta kontu korronteari dagozkionak) edo Bilbao Bizkaia Kutxako 2095/0365/49/3830626218 kontu korrontera transferentzia eginda • **Ale solteak eskuratzea:** koaderno hauek eta Bakeaz erakundeko beste argitalpen batzuk jasotzean ordaintzeko eska daitezke (4,00 euro bidaltze-gastuengatik) behean adierazitako helbidean. Ale bakoitzaren prezioa 4,00 euro da.

**bakeaz**

**Bakeaz** 1992an sortutako gobernuz kanpoko erakundea da eta ikerketan aritzen da. Unibertsitateekin, bakezaletasunarekin, giza eskubideekin eta ingurumenarekin lotutako pertsonek sortu zuten, eta haren helburua hainbat gairi buruzko gogoetarako eta gizalegezko ekintzarako irizpideak ematea da; hala nola, nazioarteko harremanen militarizazioari buruz, segurtasun politikei buruz, armen ekoizpen eta salerosketari buruz, ekonomia eta ekologiaren arteko lotura teorikoari buruz, politika hidrologikoari eta uraren kudeaketari buruz, tokiko Agenda 21eko prozesuei buruz, kooperazio politikei edo bakerako heziketari buruz eta giza eskubideei buruz. Jarduera horiek garatzeko, liburutegi espezializatu bat du; aditu sare zabal baten parte hartzeari esker, azterketak eta ikerketak egiten ditu; hainbat liburu eta berripaper teoriko sortatan, bere ikerketak eta nazioarteko erakundeen ikerketak argitaratzen ditu —besteak beste, Worldwatch Instituterenak, ICLEIrenak eta UNESCOrenak—; ikastaroak, mintegiak eta hitzaldi zikloak antolatzen ditu; elkarte, erakunde eta komunikabideei aholkuak ematen dizkie; egunkarietan eta aldizkari teorikoetan artikuluak argitaratzen ditu; eta mintegietan eta biltzarretan parte hartzen du.

Bakeaz • Santa Maria, 1-1. • 48005 Bilbo • Tel.: 94 4790070 • Faxa: 94 4790071 • Posta elektronikoa: bakeaz@bakeaz.org • http://www.bakeaz.org

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Fundación Biodiversidad

PAPER BIRZIKLATUA %100